

3. TXOSTENA

**MUNDU HOBE, JASANGARRI ETA BAKETSU
BATERA IREKIA DEN NAZIOA**

AURKIBIDEA

1	HITZAURREA	3
2	TXOSTENAREN HELBURUAK	3
3	TESTUINGURU HISTORIKOA.....	4
4	EGUNGO DIAGNOSTIKOA	6
4.1	<u>Gatazkak mundu mailan.....</u>	<u>7</u>
4.2	<u>Bloke handien arteko aliantzak eta eragile geopolitiko emergenteak.....</u>	<u>8</u>
4.3	<u>Gerra hibridoak eta desinformazioa</u>	<u>10</u>
4.4	<u>Europar Batasuna indartzea eta Zabaltzea</u>	<u>11</u>
4.5	<u>Nazioarteko hauteskunde-emitzen joerak eta horiek balio demokratikoetan eta berdintasunekoetan, inklusio eta justizia sozialean, jasagarritasunean eta lehiakortasunean duten eragina.....</u>	<u>11</u>
4.6	<u>Lehiakortasunarekin, immigrazioarekin, iraunkortasunarekin, digitalizazioarekin edo demografiarekin lotutako erronkak.....</u>	<u>12</u>
5	EUZKO ALDERDI JELTZALEAREN ESTRATEGIAREN SOSTENGU DIREN OINARRI ETA PRINTZPIOAK	16
6	EUZKO ALDERDI JELTALEAK JARRAITU BEHARREKO HELBURU ETA EKINTZA ESTRATEGIKOAK ZEHAZTEA	
	17	
6.1	<u>HELBURUAK.....</u>	<u>17</u>
6.2	<u>PROIEKTU ESTRATEGIKOAK.....</u>	<u>22</u>
7	ONDORIOAK	27

1 HITZAURREA

Txosten honetan, eta aurreko agirietan Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vascok, EAJ-PNVk, bere sorreratik izan duen konpromiso europazalea argi geratu delarik eta, are garrantzitsuagoa dena, Europar Batasunaren parte izatea ezinbesteko bihurtzen duten arrazoiak gogoan, betiere Euskadi mundura irekia den eta nortasuna, kohesio soziala, lehiakortasuna, genero berdintasuna, aniztasuna, giza eskubideak eta justizia soziala helburu dituen nazioa den aldetik behar duen konexio natural gisa, egungo egoera geopolitikoaren analisi xumea egitea bilatzen dugu, ondorengoak kontuan hartuz:

- Mundu mailan ematen ari diren gatazkak.
- Gerra hibridoak eta desinformazioa.
- Bloke handien arteko aliantzak.
- Egun sortzen ari diren eragile geopolitikoak
- Nazioarteko hauteskundeetako emaitzen joerak, balore demokratikoetan, justizia sozialean, berdintasunean eta iraunkortasunean eragin esanguratsua izaten ari direnak, munduko hainbat erregioetan norabide politiko eta soziala baldintzatuz.
- Lehiakortasunari, migrazioen fenomenoari, jasangarritasunari, digitalizazioari, Adimen Artifizialari edo demografiari lotutako erronka globalak.

Gure ibilbide-orriak honako hauek izan behar ditu abiapuntu: zer garen, gaur egun non gauden (Euskal Diaspora, harremanak Europako Alderdi Demokratarekin, Renew Europe...) eta nazioarteko zein proiektu estrategiko ditugun (Makroeskualde Atlantikoa, Euroeskualdea eta Arku Atlantikoa, euskararen ofizialtasuna eta euskal kulturaren sustapena munduan, nazioarteko konektibitatea eta inbertsioen erakarpina, giza eskubideen eta balio demokratikoen defentsa...), globala eta tokian tokikoa, eta gure balio industrialak munduan duen lekua aldarrikatzea.

Hortik abiatuta, identifikatu behar dugu non, nola eta norekin nahi dugun eta harreman horiek norekin sendotu nahi ditugun, eta gure ustetan marra gorriak zeintzuk izango diren, txosten honen bigarren puntuan jasota dauden helburuak lortzeko. Era berean, txosten honek EAJ- PNVren nazioarteko harremanen eta harreman diplomatikoen gobernantza-eredu bat planteatzen du, alderdi gisa koordinatuta egotea, sinergia politikoak sortzea, optimizatzea eta aprobetxatzea ahalbidetuko diguna, tokikotik globaleraino eta alderantziz. Tokian tokikoa lantzea, euskal egiteko eredua bultzatuz, mundura irekia.

2 TXOSTENAREN HELBURUAK

Hasieran esandakoari jarraipena emanez, alderdi gisa, nazioartean ditugun helburuek balio behar digute garena defendatzeko, Herri bat, nazio bat, eta helburu dugun horretarantz eraman gaitzaten, Estatu propioa lortzea, zazpi euskal lurraldeak batuko dituen, Zazpiak bat, European ahots propioarekin agertuz, nazioartean dagoeneko ditugun sare eta harremanak baliatuz eta berri batzuk eraikiz, baina garena galdu gabe.

Mundu global batean bizi gara, eta bertan:

- Egunez egunera gehiago eragiten digu inguratzen gaituen guztiak, baita planetako beste lekuek eta leku horietan batzuetan hartzen diren erabaki politikoek ere.
- Aldi berean, Europako eta nazioarteko politika urrun sentitzen dugu eta batzuetan jarrera batzuk ulertzen zailak egiten zaizkigu.
- Gogortzeko arriskuan egon gaitezke gatazken aurrean edo gerra egoeran bizi diren edo beren funtsezko eskubideak urratzen ari direla ikusten ari diren pertsonen egoerari buruzko informazioen aurrean.

Ukaezina da Euskadik lehiakortasunaren eta gizarte-ongizatearen arloko erronka globalak partekatzen dituela beste eskualde, nazio eta Estatu batzuekin, nahiz eta beste eragile batzuekiko dugun aldea ahots propioarekin egiteko borondatea, gaitasuna eta bokazio argia den. Hori esanda, txosten honen helburua nazioarteko ekintza politikorako estrategia propioa ezartzea da, honako hauetarako plataforma izan dadin:

- Gainerako txostenetan jaso diren helburuak lortzea.
- Gure Herriari eta Alderdiari lotuta dagoen nazioarteko marka indartzea, bai eta bere proiektzioa eta eragiten duen pertzepzioa ere.
- Datozen urteetarako nazioarteko proiektu estrategikoen zorroa identifikatzea.
- Nazioarteko joera geopolitikoak identifikatzen lagunduko diguten eta inspirazioa eta informazioa emango diguten mekanismoak definitzea, aukerak aprobetxatzeko eta balizko arrisku operatiboak, kudeaketakoei eta politiko-sozialei aurrea hartzeko.
- Gure jarduketa politikoa garatzeko beharko ditugun nazioarteko aliantza estrategikoak antzematea, ezartzea eta horietan parte hartzea.

Nazioarteko Ekintza Politikoa ulertzen dugu EAJ-PNVren herri estrategia politikoaren zati gisa eta, horregatik, askotariko legegintza-ganberen (estatukoak zein Europakoak), nazioarteko erakundeen eta, oro har, ordezkaritza dugun guneen estrategiak, proiektuak, ekintzak eta posizionamenduak koordinatzeko eta komunikatzeko mekanismoak funtsezkoak izango dira ahalik eta inportu eta etekin handiena lortzeko.

3 TESTUINGURU HISTORIKOA

Mendebaldeko Europako Herririk zaharrena gara, eta memoria dagoenetik Bidasoaren ertz banatan eta Mendebaldeko Pirinioen alde banatan bizi gara, eta oraindik hitz egiten dugun hizkuntza ez da ezagutzen den ezein hizkuntza-familiatarikoa, zaharrenetarikoa da eta mendebaldeko Europako historiaurrearen lekukotasun bizitzat hartzen da. Alde horretatik, mendeetan zehar munduko itsaso eta ozeano guztietan zehar ibili diren pertsonak, batez ere gure itsas-gizonak, kontinente europarraren espiritua eta borondatea osatzen lagundu dute, baita kontinente horren proiektio mundiala eta mundu hau gaur egun ezagutzen dugun bezala eraikitzen ere.

Bi ardatz iraunkor daude, eta horien gainean oinarritu da gure ibilbide politiko luzea Europa baketsu eta politikoki batu bat eratze helburuarekin. Ideia hori European azaleratu eta loratu zen, batez ere gure Kontinentea suntsitu duten gerrak saihesteko, batez ere joan den mendean, eta etorkizunera begira proiektatu behar dira helburu bera lortzeko.

Gure diskurtsoaren eta ekintza politikoaren lehen ardatza izan da Europa Federal baten alde egitea, mundua osatzen duten eskualde-blokeen egituraketa horretan indartsu egoteko asmoarekin. Askotariko errealitateak aintzatetsiz eta errespetatuz eraikiko den Europa. Hau da: pertsona, udalerria, lurralde historikoa, eskualdea,

nazioa eta estatua. Gaur egun subsidiarotasun-printzipioa esaten zaion hori errespetatuz eraikitako Europa Federala, alegia.

Gure kanpo-politikaren bigarren ardatza da gure Herri nortasuna etengabe berrestea, berezko espazio politikoa dagokion nazio gisa. Beraz, Euskal Nazioa subiranotasuna batzen eta partekatzen duten Europa Federal horretako subjektu eta protagonista politiko izan dadin lan egiten dugu.

EAJ-PNVk nazioarteko hainbat harreman ezarri ditu bere historian zehar, bere kausa abertzalea testuinguru globalean sendotzera bideratuz eta balio demokratiko, europazale eta federalistak sustatuz:

- **Aliantzak erbestealdian:** frankismo garaian, EAJ-PNV erbestetik aritu zen eta Bigarren Mundu Gerrako herrialde aliatuen laguntza bilatu zuen, hala nola Erresuma Batuen, Frantziaren eta Amerikako Estatu Batuen. José Antonio Agirre Lehendakariak zeregin nabarmena izan zuen euskal kausa demokraziaren aldeko borrokaren berezko alderdi gisa sustatzeko, eta euskal ordezkariak sortu zituen munduko hainbat herrialdetan. Hala, Euskal Kontseilu Nazionalak nazioarteko lehen aliantza izenpetu zuen Frantzia Askearekin. Ondoren, erbesteko Euzko Jaurlaritzak, zerbitzuak eskaintzeaz gain, unitate bat sortu zuen aliatuen armada barruan, Gernika Batailoia izenekoa. Izan ere, euskal gudariak Gironda departamentuaren zati bat askatu zuten eta De Gaulle jeneralak, Frantzia Askeko buruak, unitate hura ikuskatu eta agurtu zuen, Ikurrina zeramala. AEBri dagokionez, erbestealdian Euskal Ordezkaritza eratu zen New York hirian. Harrez geroztik, EAJ-PNVk harremanak ezarri zituen Nevada, Idaho eta Kaliforniako euskal diasporarekin. Lotura hauek ahalbidetu digute euskal jatorriko politikariekin harremanetan egoten, dela Alderdi Errepublikarrekin dela Alderdi Demokratarekin.
- **Harremanak Europan:** Bigarren Mundu Gerra baino lehen, EAJk borondate europazalea erakusten zuen, 1933ko Aberri Egunerako aukeratu zen goiburuan ikusten zuen bezala: EUZKADI EUROPA. Bigarren Mundu Gerraren amaieratik, EAJ-PNV mugimendu katoliko-kristau eta europazaleekin lerrokatu zen. Parte hartze aktiboa izan zuen Nouvelles Equipes Internationales (NEI) bezalako sareetan (Kristau Demokraten Internazionalaren aitzindariak), orain berreskuratu den Parisko Avenue Marceau eraikinetik. Gainera, Frantziako Herri Mugimendu Errepublikarra eta Italiako Demokrazia Kristaua bezalako alderdiekin kolaboratu zuen. Harreman horiek Europako integrazioan zuten eragina sendotzea eta federalismoa sustatzea zuten helburu, nazioarteko estrategiaren funtsezko printzipio gisa. Erabakitzeo eskubidea eta estaturik gabeko nazioen eskubideak defendatzen dituzten alderdiekin elkarlanean aritu da EAJ-PNV, hala nola SNP (Scottish National Party), Plaid Cymru (Gales) edo Femu a Corsica (Gilles Simeoni) alderdiarekin. Alderdi horiekin egindako aliantzek erabakitzeo eskubideari buruzko estrategiak partekatzeko balio izan dute.
- **Gure presentzia Latinoamerikan:** Erbestean Euskal Ordezkaritza sortu zen New Yorken, Anton Irala, Manu eta Ramon de la Sota eta Manuel Ynchaustirekin. Harrezkero, Nevada, Idaho eta Kaliforniako euskal diasporarekin jarri zen harremanetan EAJ-PNV. Lotura horiek aukera eman dute euskal jatorriko politikariekin harremanetan egoteko, bai Alderdi Errepublikarrekoekin, bai Alderdi Demokratakoekin.
- **Nazioarteko erakundeetan dugun parte hartzea:** EAJ-PNVk ere zeregin aktiboa izan du Europako erakundeetan, eta ahots propioarekin parte hartu du nazioarteko hainbat foro eta erakundetan. Europako Alderdi Demokratako kidea da, Europako proiektua indartzea eta estaturik gabeko eskualde eta nazioekiko errespetua defendatzen duten beste alderdi batzuekin batera. Europako Parlamentuan eta Eskualdeetako Lantaldean, EAJ-PNV Renew Europe taldean sartuta dago. Jarrera horri esker, federalismoa sustatu du Europar Batasunaren barruan. Gainera, Eusko Jaurlaritza izan zen 1988an Bruselan bulego bat sortzen lehena. EAJ-PNVk lanean jarraituko du NBErekin harremanetan jarraitzeko

eta elkartasun-programetan lankidetzan arituko da ACNUR, FAO, PNUD, UNESCO eta UNICEF bezalako erakundeetan, eta euskal gazteen presentzia aldarrikatuko du JPO gisa.

Laburbilduz, bere eragina zabaltzeko, bere helburu politikoetan aurrera egiteko eta mundu mailan euskal kausari ikusgarritasuna emateko, EAJ-PNVk lankidetzaz-estrategiak erabili izan ditu nazioartean aurkitu dituen antzeko mugimenduekin eta diplomazia kulturalarekin, bai eta diasporekin dituen harremanak ere.

4 EGUNGO DIAGNOSTIKOA

Gaur egun gara mundu mailan ematen ari den paradigma aldaketa baten lekuko. Berlingo Harresia erori zenetik eta Gerra Hotza amaitu zenetik, 1989an, nazioen arteko harreman politiko eta komertzialen ikuspegi aldeaniztun eta globalizatzailea zabaldu zen. Azken 30 urteetako globalizazio-aldi horren adibide dira, besteak beste, merkataritza-muga-zergen jaitsiera eta alde anitzeko akordioak, hala nola Parisko Akordioa. Hala ere, eredu horrek erronka berriei egin behar die aurre orain, bizkortze teknologikoaren, krisi klimatikoaren eta protekzionismo globalaren ondorioz. Gainera, munduko potentzien aldaketa bat gertatzen ari da protagonistengan eta haien eragin-gaitasunean, eta eragile berriak azaleratu dira, hala nola BRICekoak: Txina, India, Brasil

Erronka berriak ditugu aurrean: Errusiak Europarekiko duen ustezko nagusitasuna, Errusiak Ukrainaren aurka egindako eraso-gerran gauzatua; Ekialde Hurbilean gero eta ezegonkortasun handiagoa; Amerikako eta Europako Estatu Batuen eta Txinako Herri Errepublikaren arteko merkataritza-gerra; Txinako industria-domeinuaren estrategia; Europak lehengai kritikoekiko duen mendekotasuna; eta Estatu Batuetako administrazio berriak klima-aldaketaren aurrean duen jarrera. Tentsio geopolitikoak eta hornidura-kate estrategikoen birkonfigurazioak eragina izan dezakete erantzuteko dugun ahalmenean.

Gaur egun gure kontinentean pisu ekonomikoa eta protagonismo politikoa galdu izanak eraman behar gaitu erantzun bat ematera. Bloke antagonikoetan banatuta eta lehia bizian dagoen mundu baten paradigma berriak Europa eraman behar du bere subiranotasun politikoa, kulturala, energetikoa, teknologikoa, komertziala, elikadurakoa eta, batez ere, defentsakoa indartzera, zentzu holistiko eta globalean, Europako demokrazien barne eta kanpo egonkortasuna mehatxatzen duten gerra hibridoaren eta desinformazioaren aurkako babesa barne.

Nazioarteko ordena berri bat sortzeko oinarriak mugitzen ari diren testuinguru konplexu eta nahasi honetan, Euskadi Europarekin eta munduarekin konektatzen duten loturak dira eta izaten jarraitu behar dute gure historia eta kultura, nazio humanista eta demokratiko gisa ditugun baloreak. Aldi berean, eskualdeak eragile proaktiboak izan behar du maila anitzeko elkarlanean eta erronka estrategikoen kudeaketan, hala nola migrazioan eta jasagarritasunean, bere erresilientzia bermatuz eta Europako esparruan konponbideak eskainiz.

Aurre egin behar diegu totalitarismoei eta munduan demokrazia deuseztatzen saiatzen diren populismoei. Demokraziak bermatu behar ditu eskubide guztien errespetua, aniztasuna eta inklusibotasuna. Gainera, aurre hartu behar diegu teknologia berriek, hala nola AAI eta automatizazio aurreratuak, lan- eta ekonomia-eremura ekarriko dituzten aldaketei, ekar ditzaketen ondorio negatiboak arinduz. Planetaren eta garapen iraunkorraren alde egin behar dugu, desberdintasunei aurre egin behar diegu, eta pertsona, herri eta nazio guztientzako bake, segurtasun eta askatasuneko espazio handi bat eraiki behar dugu, balio horien inguruan gizarte integratuak lortzea ahalbidetuz. Balio horiek eztaba daezinak dira, eta printzipio eta balio horiek errespetatzen ez dituzten alderdiak, gobernuak edo erakundeak aliatzea eragozten dute.

ZER ERRONKEI HELDU BEHARKO DIEGU?

4.1 Gatazkak mundu mailan

Mundua iritsi da II. Mundu Gerraz geroztik eman den gatazka kopururik handienara. Bakearen narriatze prozesua eman da, azken hamarkadan areagotu dena, batez ere azken bost urteetan.

4.1.1 Errusiaren eraso-gerra Ukrainaren aurka

Errusiak Ukraina eraso izanak, azken honek NATO erakundearen, Amerikako Estatu Batuen eta Europar Batasunaren babesa jaso duela, nabarmen urratu du nazioarteko zuzenbidea, eta lehena eta orainaren arteko aldea erakutsi du EBren eta Errusiako Federazioaren arteko harreman diplomatiko eta komertzialetan. Gerrak 1.000 egun bete zituen 2024ko azaroaren 19an, eta Errusiako Federazioa ezegonkortzeko elementu bilakatu da, mundu mailako bakerako arrisku eta Europaren eragin geopolitikoa definitzeko funtsezko agertoki bilakatzeaz gain. Aldi berean, mendebaldeko aliatuen arteko lankidetzak militarra indartzeko balio izan du, nahiz eta EBren barruan zenbait desadostasun agerian utzi dituen. Gainera, Errusiako Federazioaren ezegonkortzea Europako ekialdeko eskualdera hedatzeko arriskua ere badago.

4.1.2 Ekialde Hurbileko gatazka

Gatazka honetan Israel jartzen du Iranek alde dituen eta finantzatu dituen talde armatuen kontra, hala nola Hamas eta Hezboláh Gazan, Zisjordanian eta Libanon. 2023ko urriaren 7ko sarraskiaren ondoren, biztanleria zibila ondorio latzak jasaten ari da bere giza eskubideak urratzen ari direlako. Nazioarteko gatazka baten aurrean gaude, eta ezegonkortasun handia sortzen du eskualde horretan eta eskualdetik kanpo. Nazioartean banaketa sakonak sortzen dituen gatazka da, dakartzan ondorio historiko, ekonomiko, politiko eta geoestrategiko garrantzitsuengatik. Estatu batek bidezko defentsarako dituen eskubideak ez du baztertu behar defentsa hori proportzionaltasunetik eta nazioarteko itunen arabera egin behar dela. Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1947an onartutako Ebazpena errespetatzeko eskatzen dugu, bi estaturen sorrera ezartzen duena.


4.1.3 Tentsioak Asian

Indo-Pazifikoko eskualdean, AEB da Japoniarekin, Koreako Errepublikarekin eta Australiarekin batera daukan koalizioaren buru, Txinako Herri Errepublikaren gorakada indargabetzeko, bereziki Txinako Errepublikarekin (Taiwan) eta Hegoaldeko Txinako Itsasoarekin zerikusia duten gatazketan. Errusiako Federazioak eta Txinako Herri Errepublikak aliantza estrategiko bat dute mendebaldeko eskualdean duen eraginaren aurka.

4.1.4 Gatazkak Afrikan (Sudán eta Sahel)

Afrikako herrialdeetako barne gatazkek kanpoko potentzien arteko eztabaida eremu bihurtu dute eskualdea, hala nola Txinako Herri Errepublikaren eta Errusiako Federazioaren artean (Wagner taldearen bidez), baita lurralde horietan estrategikoki eragin nahi duten beste eragile global batzuen artean ere. Lehia horrek garrantzia hartu du nazioartean, ez bakarrik bere inplikazio humanitarioengatik, baita eskualdeko baliabide natural ugari eskuratzeko ere, bereziki mineralak, oso gutiziatuak baitira. Testuinguru horretan, Afrikan hainbat estatu-kolpe eman dira Niger, Gabon, Burkina Faso, Mali, Ginea, Txad eta Sudan bezalako herrialdeetan. Horien ondorioz gobernu demokratikoak boteretik kendu dituzte, eta zuzendaritza militarrek buru dituzten erregimenak sortu dituzte, kontrol autoritarioa egiten dutenak, Giza Eskubideekiko errespetua kolokan jarritz.

Jarraipena egin behar zaien bost gatazka



4.2 Bloke handien arteko aliantzak eta eragile geopolitiko emergenteak

Gaur egun, hainbat gatazka beliko esanguratsuk markatzen dute panorama geopolitikoa, eta horietan potentzia globalen arteko aliantza eta tentsio multzo handiak identifikatzen dira. Gatazka horiek gero eta polarizazio handiagoa islatzen dute, eskualde-egoeraren arabera aliantza dinamikoeekin.

Panorama geopolitiko honetan eragile berriak sortu dira, ekonomiaren gorakadarekin, nazioarteko foroetako presentziarekin edo baliabide estrategikoak mobilizatzeko gaitasunarekin lotuta. Sortzen ari diren eragile horiek botere globalaren dinamika birdefinitzen ari dira, Mendebaldeko lidergo tradizionalaren alternatibak aurkezten ari dira, eta gero eta zeresan handiagoa izan nahi dute gatazken konponbidean eta mundu-ordena berri baten sorreran. Euskadi bat dator Europar Batasunarekin nazioarteko blokeei dagokienez, eta nazioartean eragile garrantzitsu gisa duen proiektzioa indartzea du helburu. Dagoeneko finkatuta dauden eta gorabidean dauden eragileetako batzuk ondorengoak dira:

4.2.1 Amerikako Estatu Batuak

Esparru atlantikoan, funtsezkoa da Europaren eta Estatu Batuen arteko harremanetan ematen den asimetriari heltzea, batez ere segurtasunean eta ahots politikoari dagokionez, nazioarte mailan. Europak bere autonomia indartu eta besteekiko mendekotasuna murriztu behar du, harreman horretan berdintasuneko bazkide gisa jardutea ahalbidetuko dioten berezko gaitasunak garatuz. Ikuspegi horretatik, Atlantikoaz gaindiko lankidetzaren aldeko jarrera defendatzen dugu, baina betiere harreman orekatuetan, elkarrekiko errespetuzkoetan eta Europar Batasunak bere interes estrategikoen defentsan modu independentean jarduteko duen gaitasuna arriskuan jartzen ez duten harremanetan oinarrituta. Berdinen arteko lankidetzak hori funtsezkoa da erronka globalei koordinatuta aurre egiteko, EBk nazioartean ahots irmoa eta autonomoa izan dezan.

4.2.2 Txinako Errepublika Popularra

‘Eragile berria’ ez den arren, nazioartean duen proiektzioa nabarmen handitu da, Xi Jinping presidentek 2012tik bultzatutako "Txinatar Ametsa" izeneko plan estrategikoaren barruan. Kontzeptu honek 2049an Txinako Alderdi

Komunistaren (PCC) sorreraren mendeurrenerako potentzia global lider gisa finkatzeko asmoa islatzen du. Mugarri nagusien artean dago lider bihurtzea ekonomian, teknologian, defentsan eta kulturaren, "Made in China 2025" bezalako estrategiekin batera, zeinak funtsezko sektoreak menderatzea bilatzen duen, hala nola adimen artifiziala, bioteknologia eta erdieroaleak. Txinako Herri Errepublikak BRI (Belt and Road Initiative) bezalako ekimenen buru da, eta nazioarteko ordena birmoldatzea du helburu, Mendebaldearen alternatiba gisa aurkeztuz. Munduan duen eragin ekonomiko, teknologiko eta politikoak lider gisa kokatzen du bloke global berri batean, eta, ildo horretan, defendatzen dugu EBren eta Txinaren arteko harremanak elkarlanean eta elkarrekiko errespetuan garatu behar direla, betiere Nazioarteko Zuzenbideak eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioak ezarritako printzipioen barruan, uigurak bezalako nazio gutxituekiko errespetua bermatuz. Horregatik, Europan ditugun baliabideetatik balio erantsia sortzeko jarrera ausarta hartu behar dugu, edozein industria eta zerbitzutatik, Asiako herrialdearen aldetik monopolio-tentaziorik egon ez dadin.

4.2.3 Latinoamerika

Latinoamerika eta Karibe funtsezko aliatuak dira zuzenbidean oinarritutako nazioarteko sistema indartzeko, eta Europarekin duten lankidetzak funtsezkoa da arlo ekonomikoan, politikoan zein kulturalean. Kultura-, merkataritza- eta inbertsio-harremanak ditugu haiekin, eta interes bera dugu hazkunde iraunkorra sustatzeko, erresilientzia ekonomikoa hobetzeko eta bidezko trantsizio ekologiko eta digital baten buru izateko. Eskualdeak funtsezko baliabide estrategikoak ditu, hala nola mineralak, energia, biodibertsitatea eta nekazaritza-produktuak, eta horien bidezko kudeaketa errespetuzkoa da merkataritzaren bidez, eta Europako hornidura-segurtasuna eta egonkortasun ekonomikoa indartzen ditu. Bi eskualdeek gizarte inklusiboak eta jasangarriak eraiki nahi dituzte, 2030 Agendarekin eta Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH) duten konpromiso komuna oinarri hartuta. Elkarren eskutik bidezko trantsizio ekologiko eta digitala gida dezakete, bereziki Global Gatewayren inbertsio-estrategiara joz. Estrategia horren helburua da lotura adimendunak, garbiak eta seguruak sustatzea sektore digitalean, energiarenean eta garraioarenean, eta mundu osoko osasun-, hezkuntza- eta ikerketa-sistemak indartzea. Beraz, Latinoamerika funtsezko aliatua da interes komunak hobeto defendatzeko eta munduko erronkei bazkide gisa batera aurre egiteko.

4.2.4 India

Indiak garrantzia hartu du bere hazkunde ekonomikoari, informazioaren teknologian lider izateari eta G20 eta BRICS bezalako entitateetan duen eragin diplomatikoari esker (Brasilgo Errepublika Federatiboa, Errusiako Federazioa, Indiako Errepublika, Txinako Herri Errepublika eta Hegoafrikako Errepublika). Azken hamarkadan, herrialdeak orekatu egin ditu Amerikako Estatu Batuekin eta Errusiako Federazioarekin dituen harremanak, eta munduko hegoaldean funtsezko ahots gisa sendotzea bilatzen du, garrantzitsua baita hazten ari den merkatu gisa eta bere giza kapitalagatik eta kapital teknologikoagatik.

4.2.5 Turkia

Turkiak are kanpo-politika aktiboagoari heldu dio, eta funtsezko zeregina izan du eskualdeko gatazketan, hala nola Sirian, Kaukason (Nagorno Karabaj) eta Libian. Europaren eta Asiaren artean duen posizio estrategikoak, bere gaitasun militarrekin batera, gero eta eragin handiagoa duen bitartekari eta aktore bihurtzen du. Hala ere, ez dugu ahaztu behar herrialdeak, Nazio Batuen txostenekin agerian utzi duen bezala, giza eskubideak urratu dituela jatorri kurduko herritarren aurka.

4.2.6 Saudi Arabia

Saudi Arabiako erresumaren kasuan, azken hamarkadan lortu du bere eragina areagotzea, bere ekonomia dibertsifikatuz (NEOM bezalako proiektuak) eta gatazketan bitartekari gisa arituz. Nabarmenezkoa da 2023an Israelekin harremanak normalizatzeko akordio bat negoziatzen ari zela AEBekin, eta urriaren 7ko erasoaren

ondoren bertan behera geratu zela. Gainera, zeregin aktiboa izan du petrolioaren prezioak egonkortzeko OPEP+aren bidez, ekonomiaren dibertsifikazioari eta tokiko industriaren sorrerari lehentasuna emanez eta energiaren prezio baxuak aprobetxatuz. Gainera, tokiko enplegua sortu du eta energia berriztagarriak eta ekonomia zirkularra bultzatu ditu.

4.2.7 Arabiar Emirerri Batuak eta Qatar

Antzeko garapen-ereduak dituzte, kontrako jarrera politiko eta diplomatikoekin. Gainera, esparru ekonomikoan duten posizio estrategikoa kontuan hartuta (euskal enpresen presentzia dugu bertan), nabarmendu behar da herrialde horiek beren eragin globala sendotzen ari direla, inbertsio esanguratsuen bidez sektore estrategikoetako enpresa handietan. Gainera, Arabiar Emirerri Batuek eta Qatarrek eskualdeko gatazketan nolabaiteko inplikazioa izan dute hainbat modutan, ekintza diplomatikoaren eta laguntza logistiko militarren bidez, besteak beste.

4.2.8 Brasil

Luiz Inacio Lula da Silva aukeratzean, Brasilek ikuspegi multilateralari heldu dio berriro, ingurumen-jasangarritasuna bezalako gaien buru izatea bilatuz eta BRICS eta G20 blokeetan duen zeregina biziberrituz. Latinoamerikan potentzia gisa duen posizioak funtsezko eragile bihurtzen du eskualdeko eta nazioarteko diplomaziarako.

4.2.9 Afrikar kontinenteko herrialdeak

Sahel bezalako eskualdeak eta Nigeria eta Hegoafrikako Errepublika bezalako herrialdeak garrantzia hartzen ari dira. Txinarekiko eta Errusiarekiko elkarlanak, terrorismoarekin eta baliabideen ustiapenarekin lotutako erronkekin batera, interes globala areagotu dute eremu horietan. Maroko da, esate baterako, jarduera ekonomikoaren lekualdaketa onuraduna, baina aipatzekoa da Mendebaldeko Sahararekiko duen jarreraren nazioarteko legezkotasunik ez duela, Nazio Batuen ebazpenek ezartzen duten bezala.

4.2.10 ASEAN, Koreako Errepublika eta Japonia

Asiari dagokionez, Asiako hego-ekialdeko herrialdeek (ASEAN) aukerak dituzte Euskadin ekoitzitako ondasunak eta zerbitzuak merkaturatzeko, nabarmen geratzen ari baitira arlo horretan:

Indonesia, Malaysia, Filipinak, Thailandia edo Vietnam, baita Koreako Errepublika ere, giza garapenaren maila altuarekin, automobilgintzako eta teknologiko industria sendoari esker esportaziorako aukerak eskaintzen dituztelako.

Japonia eta Singapur, era berean, giza garapen maila handiko herrialde gisa identifikatzen direlako, eta, beraz, haiengandik atera daitezke Euskadira transferitu daitezkeen jardunbide egokiak.

4.3 Gerra hibridoak eta desinformazioa

Kontzeptu hau — 2000ko hamarkadaren hasieran erabili zen lehen aldiz — metodo ez konbentzionalak erabiltzen dituzten konfrontazio-estrategien inplementazioarekin lotuta dago. Barne hartzen ditu zibererasoak, sare sozialetako desinformazio-kanpainak, eraso psikologikoak edo finantzarioak eta bide diplomatikoak eta mediatikoak desegonkortzeko helburuarekin erabiltzea. Eraso horiek azpiegitura kritikoen aurka ere egin daitezke (energia-hornidura, finantza-sistemak edo osasun-sareak), gobernuak edo erakundeak ahultzeko.

Insurgentzia edo 'fake news' bezalako mekanismoen erabilera ere identifikatzen da borroka estrategia ez-tradizional horien barruan. Taktika horiek segurtasunik eza handia eragiten dute, pertsonen erabakietan eragina dutelako eta balioak, konfiantza eta egitura sozial eta politikoa urratzen dituztelako, ordezkaritza-erakunde eta -demokraziekiko atxikimendurik eza sustatuz. Tartean dauden eragileek — gobernuak, talde terroristak edo eragile ekonomikoak barne — iritzi publikoa manipulatzera jotzen dute gizarteak zatitzeko eta erakunde demokratikoekiko konfiantza ahultzeko. Adibidez, Bielorrusiarekin ikusi dugu hori, Poloniako mugan sustatu duen migrazio-gerra hibridoan.

4.4 Europar Batasuna indartzea eta Zabaltzea

Zabalkuntza da Europara sartzeko proposatzen diren estatuen aldetik konpromisoak eskatzen dituen prozesua, eta onurak dakarzkie estatu kide berriei eta EBri berari ere. Politikaren egonkortasuna bermatzen du, herritarrek EBko edozein lekutan bizitzeko, ikasteko edo lan egiteko askatasuna izatea, eta merkataritza handitzea merkatu bakarrera sartzearen bidez, finantzaketa eta inbertsioaren bidez, eta Europako herritarrentzako eta enpresentzako oparotasunaren eta aukeren bidez. Gizarte-, ingurumen- eta kontsumo-arau zorrotzenek eta kultura-aniztasun handiagoak Batasunaren proiektua aberasten dute.

Inoiz baino gehiago, Europar Batasunak bakea izan behar du ardatz. Bakean inbertitzeak ekarriko digu Europa seguruago bat.

Arestian esandakoagatik guztiagatik babesten dugu Europar Batasuna zabaltzea, baldin eta estatu kide berriek estandar demokratiko zorrotzak eta sendoak betetzen badituzte — egungo estatuak nahiz estatu kideen artean sortutako estatu berriak izan daitezke —, egonkortasuna, bakea eta oinarritzko eskubideen errespetua bermatuz, bai eta emakumeen berdintasunaren defentsa, LGBTIQ kolektiboko pertsonen eskubideak eta migratzaileenak. Zabalkuntza horrek demokrazia eta Giza Eskubideak indartzeko tresna izan behar du, ez bakarrik Europan, baita esparru horren onura izan dezaketen hurbileko eskualdeetan ere. Bakea izan zen EBren eraketaren helburu nagusia, eta orain, gure ikuspegitik, estatu berriak integratzea aukera gisa ikusi behar da balio partekatuak indartzeko eta bakearen eta oparotasunaren Europako proiektua sendotzeko, EBren egonkortasuna arriskuan jartzen duen edo gobernu-sistema autoritario edo errepresiboak dituzten herrialdeak barne hartzea dakarren hedapen oro saihestuz.

4.5 Nazioarteko hauteskunde-emaitzen joerak eta horiek balio demokratikoetan eta berdintasunekoetan, inklusio eta justizia sozialean, jasangarritasunean eta lehiakortasunean duten eragina

Azken hamarkada honetan erregistratu diren hauteskundeetako emaitzek joera garrantzitsuak markatu dituzte, demokraziari, berdintasunari, jasangarritasunari eta justizia sozialari eragiten diotenak. Joera hauek erakusten dute beharrezko dugula erakunde demokratikoak indartzea, gizarte eskubideak babestea eta ekonomia iraunkor eta lehiakorra sustatzea, munduan gero eta handiagoa den zatiketa eta mesfidantzari aurre egiteko.

4.5.1 Polarizazioa eta populismoa

Ziurgabetasuna eta segurtasunik eza nagusi eta gero eta handiagoak diren giro honetan, hainbat eskualdetan nabari da agenda populista eta autoritarioak dituzten liderren eta alderdi politikoen gorakada. Dinamika horiek auzitan jartzen dute balio demokratiko tradizionalekiko konpromisoa, hala nola berdintasuna eta giza

eskubideak, eta narratiba baztertzailak bultzatzen dituzte. Ameriketako Estatu Batuetan, administrazio berriak arriskuak planteatzen ditu egonkortasun demokratiko globalerako eta nazioarteko lankidetzarako iraunkortasuna eta giza eskubideak bezalako gaitan. Herritarren nahigabeak, ziurgabetasunean oinarrituta, eta etorkizuneko itzaropenen okertzeak, ikuspegi ez hain humanistarekin batera, joera hori areagotzea dakar.

4.5.2 Demokraziaren higadura eta erronka globalak

Lehenago balio demokratikoetan liderrak ziren herrialdeek barne-erronkei aurre egin behar diete gaur egun. Adibidez, Amerikako Estatu Batuetako eta Europar Batasuneko polarizazioak ekintza koordinatua ahul lezake klima-aldaketa bezalako erronka globalen aurrean. Gainera, desinformazioak, gerra hibridoek edo atzerriko herrialdeen esku-sartzeak arriskuak sortzen dituzte hauteskunde aske eta bidezkoak egiteko, sistema demokratiko tradizionalakiko mesfidantza areagotuz.

4.5.3 Iraunkortasuna eta lehiakortasun ekonomikoa

Maila globalean, iraunkortasuna lehenesten duten herrialdeen kopurua murrizten ari da hazkunde ekonomiko azkarra bultzatzen duten aukera politikoaren aurrean, askotan politika klimatikoaren kaltetan. Horregatik, erabakiak hartzerakoan, bi aldagaiak hartu behar dira kontuan, eta horien arteko oreka bilatu behar da, populismoetan erori gabe. Aitzitik, Latinoamerika bezalako eskualdeek inbertsio jasangarrirako aukerak dituzte, bereziki Mexikon, non energia berriztagarrietarako trantsizioa funtsezkoa izan litekeen, nahiz eta azpitik tentsio politikoak eta segurtasunekoak izan.

4.5.4 Erresilientzia eta berrikuntza demokratikoa

Mehatxu horiek gorabehera, kasu batzuetan demokraziek erresilientzia erakusten dute. Herrialde batzuetan lider ultrasinistak atzera egin dute, eta horrek sistema demokratikoek beren burua berritzeko eta eskubide sozialak defendatzeko duten gaitasuna azpimarratzen du. Hala ere, lorpen horiek ahulak dira, eta herritarren parte-hartze handiagoa eta erreforma sakonak eskatzen dituzte sendotzeko, neurri horiek gabe itzulketak aldi baterako izan baitaitezke.

4.6 Lehiakortasunarekin, immigrazioarekin, iraunkortasunarekin, digitalizazioarekin edo demografiarekin lotutako erronkak

Nazioarteko egungo agenda eta gobernagarritasunaren erronka nagusiek hainbat arlo kritiko barne hartzen dituzte, egungo konplexutasuna erakusten dutenak:

4.6.1 Lehiakortasuna

Ekonomia globalak aurre egin behar die hornidura-kate zatikatuak eta merkataritza-tentsioei lotutako erronkei, eta adimen artifizialean (AA) eta robotikan inbertitzeko arrakalak Europa desabantaila egoeran jartzen du Amerikako Estatu Batuekiko eta Txinako Herri Errepublikarekiko. Digitalizazioa lehiatzeko modua eraldatzen ari da, energia garbierarako trantsizioan gero eta ikuspegi handiagoarekin eta eraginkortasuna iraunkortasunarekin orekatzeko premiarekin. Baliabide natural estrategikoetan aberatsak diren herrialdeek, hala nola teknologiarantz kritikoak diren mineralekin, balio-kate globaletan hobeto integratzeko aukera dute, baina mendekotasun ekonomikoaren eta ingurumenari kalte egiteko arriskuei aurre egin behar diete. Gure enpresen eta enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna beste hirugarren eragile batzuen aurrean bultzatzeko, beharrezkoa da gehiegizko erregulazio konplexua murriztea eta arauak sinplifikatzearen alde egitea.

Europako industria lehiakorrago bihurtuko duten faktore bereizgarri nagusietako bat iraunkortasuna da. Kanpoko lehiatik bereizteko elementua izango da. Ekodiseinua funtsezkoa da ekonomia zirkularrean. Hain zuzen ere, produktuen ingurumen-inpaktuaren %80 beren diseinu-fasean zehazten da. Beraz, ekodiseinua euskal industriaren lehiakortasun-faktore eta elementu bereizle gisa ulertu behar dugu. Zenbat eta iraunkoragoak izan, orduan eta lehiakoragoak izango gara. Horixe da "Clean Industrial Deal" europar goiburuaren espiritua. Jasangarritasunaren aldeko apustu horri esker, industria eta teknologia estrategikoen garapena sustatu ahal izango dugu Europan, oinarritzko lehengaiei aplikatutako ekonomia zirkularraren arloko lan-esparru bat irekiz.

Gero eta eredu iraunkorago eta lehiakorago baterantz aurrera egiteko, ezinbestekoa da ekonomia zirkularra sustatzea, tokiko ekoizpena indartuz, birziklatze-azpiegiturak garatuz, ikerketa eta garapena bultzatuz, eta herritarrak praktika jasangarrietan heziz. Kontsumitzen ditugun lehengaien %75 baino gehiago kanpotik dakartzagu. %11 baino ez da berrerabiltzen. Horregatik, funtsezkoa izango da ekoizpen garbia bultzatu, materialak berreskuratu eta kanpoko hornitzaileekiko mendekotasuna murriztuko duen estrategia koordinatuari eustea. Mendekotasun hori kaltegarria da planetarentzat eta gure lehiakortasunarentzat. Komeni da paradigma-aldaketa bat egitea, eta ahaleginak bideratzea enplegua eta garapen ekonomiko iraunkorra sortzen duten hondakinetatik lehengaiak lortzera.

Euskadik erreferentzia-gune izan behar du Europan ekodiseinuaren eta ekonomia zirkularraren arloan. Nazioarteko egoerak sor ditzakeen zalantzen aurrean, Euskadik eredu ekonomiko gero eta zirkularragoan eta iraunkoragoan sakontzen jarraitu behar du produkzio-prozesuaren fase guztietan. Euskadik anbizio handiagoa izan behar du energia garbia sortzeko gaitasunari dagokionez. Horretarako, beste herrialde eta kontinente batzuetan garatzen ari diren alternatibak aztertu behar ditugu, haien bideragarritasuna irizpide zientifikoetan oinarrituta ebaluatuz. Esparru honetan estrategia argi eta irmo batekin bakarrik bermatu ahal izango dugu Europaren iraunkortasunari ekarpen sendo bat egitea eta gure eredu ekonomikoa indartzea.

Bestalde, Europako berrikuntza-adierazleen panelek ("European Innovation Scoreboard 2024") herrialde "berritzaile sendoen" taldean kokatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoa, Belgika, Austria, Irlanda, Luxenburgo, Frantzia edo Alemaniarekin batera, Europar Batasunak duen batez bestekoaren gainetik. Suitza, Danimarka, Suedia, Finlandia edo Herbehereak bezalako nazioen erreferentzia-maila lortzeak funtsezko sektoreetako inbertsioa handitzea eta koordinazio publiko-pribatua sustatzea dakar, Europako Batzordearen aginduz Mario Draghik eginiko txostenak iradokitzen duen bezala. Ildo horretan, berrikuntzan egindako inbertsioa BPGren % 22tik % 27ra igozteak eta industria-produkzioa modernizatzea funtsezko helburuak dira Euskadik eredu ekonomiko dinamikoago, jasangarriago eta lehiakorago baterantz aurrera egin dezan. Gure erronka da herrialde horien mailara iristea. Komeni da estrategia horiek garatzea, horiek enpresa- eta erakunde-errealitate bihurtzeko neurriak hartuta.

4.6.2 Migrazioa

Migrazio-fluxuak ugaritzen ari dira gerren, gatazken, krisi klimatikoen eta desberdintasun ekonomikoen ondorioz. Migrazioak herrialde hartzaileetan ekonomia eta berrikuntza bultzatzen dituzte, integrazio sozial eta politikorako erronkak ere planteatzen ditu. Ekonomia aurreratu askotako desoreka demografikoek, biztanleriaren zahartzeak baldintzatuta, immigrazioa iraunkortasun sozial eta ekonomikoaren eragile gisa aprobetxatzen duten politiken garrantzia azpimarratzen dute, EAEko harrera-ereduak egiten duen bezala.

4.6.3 Klima aldaketa eta jasangarritasuna

Klima-aldaketaren aurkako borrokak lehentasuna izaten jarraitzen du, eta horrek erantzukidetasun-konpromisoa eskatzen digu maila guztietan. Karbono-isuri txikiko ekonomietarako trantsizioa. Europako egungo

bizi-ereduari eta kalitateari eusteko, isuriak murrizteaz gain, ikerketan inbertsioak egin behar dira energia garbia sortzeko modu berriak eta praktika jasangarriak aurkitzeko eta klima-aldaketak dakarren inpaktura egokitzeko.

Munduko tenperaturaren igoera industriaurreko garaiarekiko 1,5°C-ra mugatzeko eta klima-aldaketaren ondorio negatiboak murrizteko, Planetak berehala murriztu behar ditu berotegi-efektuko gasen isurketak. 2050erako neutraltasuna lortzeko, isurpen txikiko ekonomiarako trantsizioak energia garbian eta garraio- eta banaketa-sarean inbertsioak egitea eskatzen du, sortutako energia etxeetara eta industriara modu eraginkorrean iritsiko dela bermatzeko. Halaber, praktika jasangarriak eta klima-aldaketara egokitzeko neurriak sustatu behar dira. Trantsizio hori modu ordenatuan egin behar dugu, gure indarguneetan sakonduz, inor atzean utzi gabe. Gero eta herrialde erresilienteagoa izan nahi dugu, baina ezinbestekoa da garapen iraunkorra eta bidezkoa sustatzea eta ildo hori lantzea.

Gaur egun gorabidean dauden teknologiek (hala nola datu-zentroek eta meatzaritza digitalak) energia eta baliabideak masiboki kontsumitzeak agerian uzten du estandar zorrotzagoak eta soluzio zirkularrak behar direla, hala nola material digitalak berrerabiltzea eta birziklatzea. Euskadik bere gain hartu behar du klima-aldaketaren aurkako borrokan dagokion erantzunkidetasuna, Europari energia garbia sortzeko ekarpen handiagoa egiteko asmo handiko ahaleginaren buru izanik. Hori funtsezkoa da, helburu klimatiko globalak lortzeko ez ezik, Europako ereduaren iraunkortasuna eta lehiakortasuna bermatzeko ere. Gure konpromisoak aukera estrategikoa izan behar du energiaren esparruan erreferentzia gisa kokatzeko.

Funtsezkoa da programa aitzindariak garatzea uraren, airearen eta lurzorua zero kutsadura sustatzeko, giza osasunerako eta ingurumenerako maila egokiak bermatuz. Aurrera egin behar dugu naturguneak planifikatze eta zaintzean, eta inbertsioak sustatu lehengoratzeko ekologikoan, biodibertsitatearen defentsan edo habitataz lehengoratzeko. Ur-hornidurako eta saneamenduko azpiegiturak osatzeko alde egin behar dugu, eta babes- eta prebentzio-jardueretan aurrera egin uholdeen eta beste hondamendi klimatiko batzuen arriskua murrizteko, muturreko fenomeno meteorologikoak gero eta ohikoagoak eta indartsuagoak izango baitira. Beharrezkoak dira hirigintza-plangintza eta lurralde-antolamendu egokiak, bai eta hirigintzaren, industriaren, ingurumenaren eta osasunaren arloko politikak ere, klima-ikuspegia zeharka jasoko dutenak.

Gaur egun, eztabaida ofizialek ez dituzte aintzat hartzen eskualdeen ikuspegia eta ahotsa, nahiz eta tokiko administrazioarekin batera gobernuak, arintze-neurrien %70 eta Parisko Akordioaren konpromisoetan aurrera egiteko egokitzapen-neurrien %90 betearazteaz arduratzen diren erakundeak izan. Garrantzitsua da lehen sektoreak eta basogintzak klima-aldaketaren aurkako borrokan duten zeregina nabarmentzea. Euskal Autonomia Erkidegoa izan zen larrialdi klimatikoa onartu zuen lehena, eta NBEk gure herria aipatu du klimarekiko anbizio handiena duten eskualdeen artean. Euskadi klima-aldaketaren aurkako borrokan abangoardia izatea nahi dugu. Testuinguru horretan, nabarmentzekoa da Nazio Batuek Bilbo aukeratu izana 2030 Tokiko Koalizioaren Idazkaritzaren egoitza gisa, Euskadik eskualde- eta toki-mailan Garapen Iraunkorreko Helburuak (GJH) ezartzeko duen konpromisoa indartzen duen aitorpen historikoa, jasangarritasunean eta ekintza klimatikoan erreferente gisa betetzen duen eginkizuna sendotuz.

4.6.4 Digitalizazioa: Gobernantza, lehiakortasuna eta eraldaketa digitala

Datozen hamarkadetan, Euskadiko ekoizpen-sarea funtsezko eremu bihurtuko da, hala nola Adimen Artifizialean (AA), Automatizazio Aurreratuan eta Robotikan. Baina ez gara hutsetik abiatzen, Euskadin informazioaren gizartea bultzatzeko estrategiak ibilbide luzea du eta eboluzionatzen joan da digitalizazio-aukerak sisteman txertatzeko eta, horrela, berrikuntza-palanka izateko eta ekoizpen-sektoreak modu disruptiboan eraldatzeko duen gaitasuna aprobetxatzeko, 5.0 industrializazio adimentsu baterako, eta gure lehiakortasunaren eta ongizatearen zutabe nagusi gisa kokatu behar da orain.

Iraultza teknologikoak produktibitatea hobetzen du eta komunitate globalekin konektatzen du. Hala eta guztiz ere, garrantzitsua da digitalizazioak belaunaldien eta eskualdeen artean sor ditzakeen desberdintasunak ezabatzea, bai eta horrek dakarren segurtasun zibernetikoak dakartzan kalteberatasunak ere. Arrakala hori murrizteko eta Europako sare baten barruan goi-teknologiako garapen-nodo bihurtzeko, ezinbestekoa da hezkuntzaren, zientziaren, industriaren eta erakundeen esparrua integratuko dituen politika irmoa bultzatzea. Funtsezkoak dira gobernantza globalaren eta estandarren beharra trantsizio digital inklusibo eta jasangarri baterako. Erronka nagusia, Euskadin, gure ekonomia digitalizatzea eta teknologia berriak erabiltzea izango da. Elkarlaneko ikuspegiak talentua aprobetxatzea, azpiegitura teknologikoak partekatzea eta baterako garapen-bidea proiektatzea ahalbidetuko digu, etorkizuneko Europako egituraketa digitalean sartuko garela bermatuz. Azken urteotan digitalizazioaren arloan eraikitako indarguneei eta makina-erremintaren sektoreen sendotasunari esker, automatizazioaren abangoardian lehiatzeko gai den produkzio-sarea sor dezakegu, betiere lan-indarraren gaikuntza eta gizarte-arrakalen arintzea kontuan hartzen dituen ikuspegi inklusibo batetik.

Funtsezko sektoreen eraginkortasuna hobetu behar dugu, besteak beste, industriarena, euskal ekonomiarentzat, eta burujabetza teknologiko nahikoa ziurtatu behar dugu, Adimen Artifizialaren onurak euskal herritarren interesekin eta ongizatearekin lerrokatu ahal izateko. AAren ezarpena eta erabilera bizkortu behar dugu, etikaren bidetik eta segurtasunez. Banda Zabal Ultralasterra ezartzearen alde egin behar dugu, 5Gren erabilera erraztu behar dugu enpresa-eremuan edo Data Centerrak martxan jartzea sustatu behar dugu, Euskadik subiranotasun handiagoa izan behar baitu datuaren kudeaketan. Hori guztia arrakala digitala murrizteko helburuarekin. EAEko administrazioek beren araudi, plan eta proiektuetan bermatu behar dute AAekin lotutako tresna berriek herritarrek babestuko dituztela, beren eskubideak bermatuz eta babestuz. Etorkizuneko erronka teknologikoek eta digitalek lehentasuna izan behar dute bizi garen mundu globalizatu honetan, baina zerbitzuen, sistemen eta azpiegituren humanizazioak erabateko lehentasuna izan beharko du, gure herritarren bizi-kalitatea eta gizarte-eredua honda ez daitezen eta bazterkeria-gunerik sor ez dadin.

4.6.5 Demografia

Jaiotza-tasaren jaitsiera eta Mendebaldeko biztanleriaren zahartzea ez datoz bat munduko beste eskualde batzuetako gazteen hazkundearekin, batez ere Afrikako kontinentean. Desoreka horrek erronkak sortzen dizkigu belaunaldi-transferentziei, pentsio-sistemen iraunkortasunari eta gizarte-zerbitzuen egokitzapenari dagokienez. Aldi berean, dinamika demografikoak aukerak ematen ditu politikak berrantolatzeke eta bidezko garapena sustatzeko. Erronka global horiek elkarri lotuta daude, eta ikuspegi multilateralak eta integratuak eskatzen dituzte, politika ekonomiko, sozial eta teknologikoak konbinatzen dituztenak, gizarte erresiliente, inklusibo eta iraunkorrak eraikitzeke. Desberdintasun sozialak, ekonomikoak eta generokoak, desinformazioa, zaintza masiboa eta errepresio politikoa areagotzearen ondorioz, gero eta garrantzitsuagoa da giza eskubideak babestea. Gure erronka da gure gizarteko gizabanako guztien ongizatearen alde egitea eta horiek berdintasunean garatu ahal izatea, dauden arrakalak minimizatuz eta giza eskubideen defentsa indartuz. COVID19aren pandemiak erakutsi zigun osasun publikoko sistema indartsu eta finko bat izatea funtsezkoa dela gizartearentzat. Jasandako pandemiak utzitako eskarmentuak erakutsi du erreakzio koordinatua eta bateratua izateak eta prestakuntza ona izateak etorkizuneko pandemien aurrean erantzun hobea ematea ahalbidetzen duela. Beharrezkoa da, beraz, sendagaiak, txertoak eta osasun-zerbitzuak ekitatiboki eskuratzeko aukera bermatzea. OME indartzen eta osasun-lankidetzak globalean lan egitea.

5 EUZKO ALDERDI JELTZALEAREN ESTRATEGIAREN SOSTENGU DIREN OINARRI ETA PRINTZPIOAK

Euzko Alderdi Jeltzalean uste osoa dugu nazioarte mailako jardunak Euskadin defendatzen ditugun balioen isla izan behar duela: demokrazia, justizia soziala, giza eskubideak, nazioarteko zuzenbidea eta aniztasunarekiko eta kultura-, arraza-, etnia- eta genero-nortasunekiko errespetua. Euskal errealtate nazionalarekin eta erabakitze eskubidearekin dugun konpromisoak gidatzen gaitu nazioartean ematen dugun urrats bakoitzean. Gure ustez, Euskadik eskubidea du beste estatu batzuekin baldintza berdinetan nazio gisa onartua izateko, eta gure lana bideratuta dago gure erakundeek Espainiako eta Frantziako estatuarekin eta Europar Batasunarekin aldebiko harreman osoak izan ditzaten. Ahalegin horrek eskumenak zabaltzea eta garatzea dakar, dela Gernikako Estatutua, NFEBHLO edo Frantziako deszentralizazio-legeak osorik betez, dela gure errealtatea eta nahiak islatzen dituzten akordio berrien bidez.

Ikuspegi humanista sakon batek bultzatzen gaitu, non garapen ekonomikoa, elkartasuna, justizia soziala, ekintza humanitarioa eta garapenerako lankidetzak gizarte oparo eta ekitatiboa eraikitze oinarriak diren. Askatasun indibiduala eta parte-hartze demokratikoa funtsezko printzipioak dira politika ulertzeko dugun moduan, eta balio horiek Euskadin defendatzeaz gain, Europako eta nazioarteko testuingurura ere eramaten ditugu. Esparru horretan, Europar Batasunaren klima-helburuekin bat datorren ekonomia jasangarriaren eta digitalizazioaren aldeko apustua nabarmentzen dugu, aurrerapen-eragile gisa. Nabarmentzekoa da, halaber, gizarte-ekonomiaren eta kooperatiba-sektorearen presentzia garrantzitsua, Europako Erkidegoko ekimenei ematen zaien balioa adierazten baitute. Lehenetsun horien helburua ez da soilik Euskadiren lehiakortasuna bermatzea, baita pertsona guztientzako etorkizun bidezkoagoa eta iraunkorragoa lortzen laguntzea ere.

Alderdi gisa, Europako eta nazioarteko erakundeetan dugun ahotsa estaturik gabeko nazioen protagonismoa indartzearen zerbitzura dago, Euskadi bezala, gure interes ekonomikoak, kulturalak eta identitatekoak defendatuz. Arlo horretan, uste dugu giza eskubideak eta bakea errespetatzea ezinbesteko direla aurrera egiteko. Horregatik, gatazkak konpontzeko bide demokratikoen alde egiten dugu beti, edozein indarkeria mota baztertuz eta adostasunik ezak konpontzeko funtsezko tresna gisa lehenetsiz. Jarrera horrek garamatza gure printzipioekin koherenteak diren nazioarteko harremanak eraikitzea, oinarritzko eskubideak urratzen dituzten edo oinarritzko askatasunen aurka doazen erregimenekin aliantzak saihestuz.

Beren naziotasuna aitortzea eta nortasuna errespetatzea bilatzen duten estaturik gabeko nazioekin bat egiten dugu eta haiekin lan egiteko konpromisoa hartzen dugu, eta justizia eta askatasunaren aldeko ahalegin baketsuak indartuko dituzten aliantzak ehuntzeko lan egiten dugu. Komunitateek beren etorkizuna erabakitze eskubidea dutela aldarrikatzen dugu. Gure ustez, erabakitze eskubidea besterenezina da, eta babestu eta sustatu egin behar da, bakean eta elkarrekiko errespetuan.

Azken batean, askatasunean, justizia sozialean eta giza eskubideen errespetuan oinarritutako nazioarteko ordena batekin hitzemandako egongo den Euskadi proiektatzea dugu asmo nagusi. Gure jardunak, nazioarte mailan, mundu bidezkoago eta solidarioago bat eraikitzea du helburu, non balio demokratikoak gailenduko diren eta herrien identitateak eta nahiak errespetatuko diren. Horrela, Euskadi esparru globalean lankidetzak eta errespetu-erreferente bihurtzeko asmoan aurrera egiten dugu, guztion aurrerapenari lagunduz, gure printzipioei eta nortasunari inoiz uko egin gabe.

6 EUZKO ALDERDI JELTALEAK JARRAITU BEHARREKO HELBURU ETA EKINTZA ESTRATEGIKOAK ZEHAZTEA

Mundu mailan gatazkak ugaritzen ari direla, eskala globalean lehiakortasunaren galera ematen ari dela eta demokraziaren eta bakearen funtsezko balioak indartu eta defendatzeko beharra ikusten dugun egoera honetan, ulertzen dugu bete beharreko bihurtu direla azken urteotan aipatu ditugun eskakizunak eta erronkak.

Nazio Batuen 2030 Agenda eta lehiakortasun energetikoaren eta teknologiko-digitalaren kontzeptuak funtsezkoak dira, gizarte gisa, gure garapen sozioekonomikoaren eredua modernitatean, erresilientzian, diplomazian eta, oro har, aukerak sortzean erreferente izango den eszenatoki baterantz aurrera egin dezagun, zeina gai izango baita ekitatea, berdintasuna, segurtasuna, egonkortasuna eta bizi-kalitatearen eta ongizatearen estandar altuak hornitzeko.

Industria Europako eragile ekonomikoa izan da Bigarren Mundu Gerraren amaieraz geroztik, eta kontinentearen estrategia edo sendotasun industrial lurralde batzuetako aukera industrialen inguruan garatu da. Gaur egun, indar handiz azaleratu dira lurralde berriak, beren tradizioan industriaren mende ez zeudenak. Txinako Herri Errepublikaren eta Amerikako Estatu Batuen lehiari aurre egitera begira Europar Batasunaren berrindustrializazio-prozesuan, Arku Mediterraneo zein Ekialdea posizionatzen saiatzen ari dira. Euskadik garrantzi berezia izan du, bai Europako industria-historian, bai Europako balioen defentsa historikoan. Hau da, Arku Atlantikoak bultzada bat ezagutu behar du arlo honetan, bere garrantziaren arabera, Euskadi erabakiguneetan koka dadin.

Azpiegiturak, askotariko dimentsioetan, konektibitatea eta nazioarteko posizionamendua eta kokapen geopolitiko garrantzi handiko elementuak dira, eta giza garapenean eragin zuzena dute lehiakortasuna eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko. Beharrezko azpiegitura fisikoetan (trenbideak, errepideak, portuak eta aireportuak) zein ekipamendu publikoetan eta elkarri lotutako sare elektriko eta digitaletan inbertitu beharko da. Euskadik oso adi egon beharko du, eta etorkizunean azpiegitura horiei eta beren bilakaerari zuzenean eragingo dieten estrategietan aurrea hartu beharko du, garapen estrategikoetatik kanpo ez geratzeko.

6.1 HELBURUAK

6.1.1 Energia-lehiakortasuna

Industriak gure ekonomian duen garrantziak gure inguruko beste herrialde batzuek baino per capita energia-kontsumo handiagoa izatea dakar. Gure energia-hornidura % 10etik beherakoa da, eta horrek dakar energiaren inportazio masiboa egin beharra, hala nola petrolio, gasa, elektrizitatea eta beste batzuk. Europako jasangarritasun-helburuekin lerrokatu behar dugu, eta gure ahaleginak jarri behar ditugu klima-aldaketari aurre egiteko, ahal den neurrian Europako jarraibideei jarraituz.

Kontsumitzen dugun petrolioaren eta gasaren prezioa mundu mailan erabakitzen da, eta elektrizitatearen prezioak iberiar logikari jarraitzen dio. Gure industriak energia horiengatik ordaintzen duen prezio erlatiboak eragina du bere lehiakortasunean, eta eragin zuzena du gure herritarren bizi-kalitatean, gure ongizate-sistemaren etorkizunean eta Europako ereduetan. Gure industriaren eta Europar Batasun osoaren energia-lehiakortasunik ezak eragin negatiboa du bizi-maila altuari eusteko eta Europaren ezaugarri diren gizarte-ongizateko eredu eusteko dugun gaitasunean. Deskarbonizazioak bi sektore energetiko ditu, Euskadiren kasuan etorkizuna definituko dutenak: elektrizitatea eta hidrogenoa. Elektrizitatea sortzea oso kontuan hartu beharreko ildo estrategikoa da datozen urteetan, hazkundera izugarria izango delako eta, hain zuzen ere,

Euskadik sektore horretan egon behar duelako etorkizunean, gure industria-ehunak elektrizitatearen sektoreari lotutako ekipamenduen (potentzia-elektronika, elektrizitatea kontrolatzeko eta bihurtzeko sistemen eraldaketa eta, batez ere, biltegiatzea) ondasunen ekoizle gisa esperientzia duelako.

Gure auto hornikuntza-maila handitzeko modua da energia berriztagarri propioaren ekoizpena indartzea, energia garbiaren ekoizpenarekin osatuz. Hala ere, berezko elektrizitate berriztagarriak edo gaur egungo edo etorkizuneko beste batzuk, fotovoltaiakoak zein eolikoak, ezin dira lehiatu eguzki-baliabide edo haize-baliabide handiagoa duten Estatuko beste eremu batzuekin. Iparraldean, energia hidroelektrikoa urteko kontsumo elektrikoaren %10 da, energia berriztagarriaren lehen iturri bihurtuz. Erraz gara liteke gure herrialdeko ibai-bide guztietan, eta ia %50era irits liteke baldin eta proiektuak garatu eta babestuko balira. Espainiako Estatuko elektrizitatearen prezioa Europako baxuenetakoa da parke eoliko eta fotovoltaiako handiei esker, Europar Batasunean Amerikako Estatu Batuetan eta Txinako Herri Errepublikan baino bi aldiz gehiago baitira, eta horrek merkatu globalean askoz ere lehiakorragoak egiten gaitu.

Isurpenak murriztu behar ditugu herrialde gisa, eta jatorri berriztagarria duen energia sortzea izan daiteke deskarbonizatzeko modu eraginkorrenetako bat. Elektrizitate berriztagarria prezio lehiakorretan eskuratzea, industriarentzat palanka estrategikoa izateaz gain, ingurumen-jasangarritasunarekiko eta ekonomia deskarbonizaturako trantsizioarekiko konpromisoa ere bada. Funtsezkoa da onartzea, nahiz eta jatorri berriztagarria duen elektrifikazioa deskarbonizazioarako funtsezkoa den, gure sare elektrikoaren egonkortasuna bermatuko duen energia-oinarri konbentzionalari ere eutsi behar diogula. Beharrezkoa da trantsizio energetikoa ordenatua izatea eta Euskadik energia-konbinazio orekatua izatea, hornidura etengabe eta fidagarria ziurtatzeko.

Gure industria-ehuna garatzeko Euskadira erakarri behar ditugun industria berri asko elektro-intentsiboak dira. Horren adierazle nagusi dira adimen artifizialari edo hidrogeno-ekoizpenari lotutako datu-zentroak. Une honetan, inbertsio horiek erakartzeko dugun ahalmena mugatua da, Euskadin ez baitago potentzia elektriko erabilgarri nahikorik. Sare elektrikoaren azpiegitura falta estaltzeko ahalegina egin beharko litzateke. Potentzia berriaren plangintza bost urteko zikloetan egiten da, eta inbertsio-muga batzuen mende dago estatu mailan. Gure egungo industria deskarbonizatzea eta industria-inbertsio berriak erakartzea eragozten duen botila-lepoa da.

Egoera horren aurrean, ondorengo helburuak ditugu:

- Energia berriztagarri propioa sortzeko prozesuetan inbertitzea, bereziki hidroelektrizitatean, auto hornikuntza eta subiranotasun energetikoa % 15eraino dibertsifikatzeko eta handitzeko. Eta, horrekin batera, klima-aldaketaren ondorioak murrizten laguntzea.
- Energia sortzeko moduari eta modu eraginkorragoan kontsumitzeko moduari buruzko ikerketan – oinarritzakoa zein aplikatua – inbertitzea, horretarako Unibertsitatea eta irabazi-asmorik gabeko beste ikerketa-zentro batzuk aktiboki inplikatu.
- Berriztagarrien sorkuntza propioa autokontsumorako eta geografia osoan banatutako tokiko kontsumorako instalazio txikietarako erabiltzea, bai eta energia-komunitateak garatzea ere, energia fotovoltaiakoa ahalik eta gehien hedatuz hiri- eta landa-mailan, egokiak diren leku guztietan.
- Instalazio eoliko eta fotovoltaiako handiak oso puntu espezifikoetara eta haize- edo eguzki-baliabide askoko eremuetara mugatzea, ingurumen-inpaktu txikia izatea, garraio-azpiegituretarako sarbidea izatea eta hezkuntza aktiboa egitea, tokiko onarpen soziala landuz.
- Gure industria modu eraginkorragoan elektrifikatzea, deskarbonizazio- eta lehiakortasun-eragile gisa.

- Ahal den neurrian elektrizitatearen banaketan inbertitzea, gure industriaren eskari elektriko handienari aurre egin ahal izateko. Beharrezkoak diren mekanismoak garatu, bultzatu eta inplementatzea, besteak beste, lankidetza publiko-pribatua eta erakunde autonomikoen parte-hartzea garraio-azpiegiturak finantzatu ahal izateko, oraingo eta etorkizuneko beharrei eta eskaerei erantzuteko.
- Urte-sasoiko biltegitratze-azpiegiturak garatzea, sorkuntza-haranak konpentsatzea eta sarean banatzeko eta sortzeko sare adimendunak garatzea.
- Garraio- eta banaketa-sarea planifikatzeko, baimentzeko eta inbertitzeko autonomia lortzeko lana egitea, gure beharretara arinago egokitzeko, Europarekiko interkonexio energetikoaren arteko posizionamendu garrantzitsua ahalbidetuz, gure kokapen estrategikoari esker.
- Eraikuntzan legeria berri bat garatzea, energia elektrikoa sortzeko panel fotovoltaiakoak jartzea sustatzeko.
- Maila guztietan efizientzia handiagotzen eta energia aurrezten jarraitzea, Euskadik mendekotasun energetikoa murriztu dezan.
- Potentzia-elektronikarekin, sistema elektrikoen transformazioarekin eta elektrizitatearen biltegitratzearekin lotutako ekipamendu-ondasunen euskal industriari laguntzea.
- Beharrezkoa da energia-biltegitratzeari buruzko ikerketarekin jarraitzea, batez ere baterien arloan, automobilaren sektoreaz besteko merkatu-nitxoa ikusiz.

6.1.2 Lehiakortasun teknologiko-digitala

Arlo hau gure lehiakortasuna bultzatzeko palanka handienetako bat dela uste dugu, bai toki mailan, bai maila globalean. Europan, eta, bereziki, Euskadin, atzeratuta gabiltza inbertsioetan, eta gure araudiak Adimen Artifiziala (AA), AGI, robotika autonomoa eta automatizazio aurreratua bezalako teknologien garapena mugatzen du. Hala ere, industria-ehun bat eta berrikuntza-adierazle batzuk ditugu (DESI, adibidez), eta horiek abangoardian jar gaitzakete lankidetza publiko-pribatua indartzen badugu eta Estatu Batuekin eta Txinarekin lehiatzeko gai diren ekosistemak sortzeko apustu irmoa egiten badugu.

Europan ez gaude ondo kokatuta, azken urte hauetan ez baitugu inbertsiorik egin Adimen Artifiziala bezalako teknologia estrategikoetan, eta Amerikako Estatu Batuekin edo Txinako Herri Errepublikarekin alderatuta, haren garapena eta hedapena mugatzen duen erregulazioa dagoelako, baina Euskadik bere berezitasuna eta potentziala aprobetxatu behar ditu, berrikuntzaren arloko rankingek edo DESI indizeak berak (Ekonomia eta Gizarte Digitalaren Indizea) agerian uzten dutena. Aurrera egiteko, hau proposatzen dugu:

- I+Gko inbertsioa handitzea AAn: funts espezifikoak sortzea AAko proiektuak garatzeko, unibertsitateekin eta tokiko enprekin elkarlanean;
- AA alorreko hezkuntza sustatzea: hezkuntza-programak ezartzea eskolatik unibertsitatera, etorkizuneko belaunaldiak AAn eta etika digitalean trebatzeko;
- nazioarte mailako elkarlana sustatzea: aliantzak ezartzea Europako ikerketa-zentro globalekin, ezagutzak eta baliabideak partekatzeko.

Ingurumena babestea, lehiakortasun energetikoa, jasangarritasuna eta deskarbonizazioa, gure industriak indartzea, zerbitzu aurreratuak sortzea edo osasun- eta ongizate-adierazleak hobetzea, neurri handi batean, beren prozesuetan gaitzeko teknologien bidez txertatzeko gai garen aurrerapen teknologikoen bidez bultzatuko dira. Izan ere, komeni da erregulazioa bat etor dadila erresilientzia industrialaren erritmoarekin, bien artean

dekalajerik sortu gabe; izan ere, legeak erresilientzia industrialak baino abiadura handiagoan egiteko arriskua dugu, gure potentzia ekonomikoa kolokan jarritz.

Esparru teknologikoa, zalantzarik gabe, funtsezkoa da lankidetzaren publiko-pribatuaren funtsa indartzeko, eta bizkarrezur handia izan behar du elkarlanerako modu berriei dagokienez. Hori guztia, eskatutako orekin eta modulazioarekin. Datuak partekatzea, betiere erabilera etikoa eta datu pertsonalen babesa bermatuz, eta teknologia disruptiboak erabiltzeko eta gizartea gaitzeko eta ahalduzko anbizio handiko estrategia batekin batera, gure balio bereizgarri eta erantsi handia izan daiteke. Euskadik eta bertako jendeak beti jakin izan dute aldaketetara egokitzen, eta oraingoan ere jakingo dugu hori egiten, gure nortasuna eta izaera indartuta atera daitezen, eta, gainera, erreferentziazko eredu izan daitezen Europa mailan, garapen ekonomiko-ingurumeneko-sozialeko ereduagatik. Euskadik ahalegin handiak egin ditu nazioartekotzeko, lehiakortasunaren palanka bihurtzeko. Osasun zientziak, "Bio", robotika, aeronautika, AA eta datuak gure industriaren etorkizuneko apustuaren adibide argiak dira. Teknologia izango dugu aliatu:

- Demokrazia eta baloreak indartzeko, gezurrezko informazioaren eta desinformazioaren aurka borrokatzeko
- Gorabidean dauden teknologien garapenean liderrak izateko hala nola adimen artifiziala, konputazio kuantikoa eta bioteknologia, eta Euskadiko funtsezko industria-sektoreen eraldaketan integratzeko. Gainera, zibersegurtasuna indartuko da euskal ekosisteman inbertsioak eginez, Euskadi subiranotasun digitalean Europako erreferente gisa sendotuz.
- Burokrazia murriztea
- Erresilientzia energetikoa eta planetaren iraunkortasuna indartzea.
- Gure industrien eta lehen sektorearen lehiakortasuna hobetzea.
- .
- Pertsonen gaitasunak zabaltzeko eta garatzeko.
- Mundu inklusibo eta bidezkoagoa egiteko, inor kanpoan utziko ez duena, erabilera zentzuzkoagoa bultzatuz.
- Etengabeko prestakuntza tresna digitaletan eta programa berrietan, Administrazio publikoetako langileentzat zein hiritarrentzat.
- Software askearen aldeko hautua egitea.
- Holistikoki ingurune seguruagoak sortzea.

Teknologiaren erabilera, etiko, arduratsu eta eredu garri bat, zalantzarik gabe, mundu hobe, jasagarri eta baketsu bati egiten diogun ekarpenaren parte izango da.

Teknologia ikusten dugu eragile estrategiko gisa, segurtasuna holistikaren ikuspegitik indartzeko. Gaur egun, segurtasunaren kontzeptua segurtasun fisiko edo militarretik haratago doa. Kontzeptu hibrido askoz konplexuagoaz ari gara, mundu digitala barne hartzen duena eta energia edo elikadura bezalako eremu estrategiko eta funtsezkoetan segurtasunari zuzenean eragiten diona. Ildo horretan, estrategikoa izango da Adimen Artifizialarekin, Quantum Computing-ekin (konputazio kuantikoa) eta beste teknologia disruptibo batzuekin, zerbitzu eta merkatu digitalekin, fiskalitatearekin, azpiegitura digitalekin eta proiektu mota horiek finantzatzeko eta bizkortzeko programekin lotutako joera, araudi eta estrategien jarraipena egitea.

Euskadin ekosistema indartsua dugu zibersegurtasunari dagokionez, eta, beraz, mehatxuei aurre egin behar diegu ekosistema horren tresnak erabiliz, hala nola Cyberzaintza, Zibersegurtasunaren Euskal Agentzia. Horiek inplementatzen edo proiektuetan tresnak probatzen ausartu behar dugu. Era berean, funtsezko ikusten dugu Euskadin irtenbide teknologiko-energetikoak garatzea, euskal sektore energetikoaren lehiakortasunari eusten laguntzeko, funtsezkoa baita sortzen dituen enplegu zuzen eta zeharkakoen kopuruagatik, bai eta BPGri egiten dion ekarpenagatik eta zerga-bilketagatik ere. Gure ustez, zibersegurtasunaren esparruan bezala, teknologiko-energetikoan ere baditugu irtenbide eta eredu erreferentzialak eta mundura esportagarriak garatzeko behar besteko aukerak. Teknologia berriak, hala nola AA eta plataforma berriak, benetan inklusiboak izan daitezen, ezinbestekoa da eremu horretan euskararen erabilera bultzatzea.

6.1.3 Lehiakortasun sozial-globala eta balio demokratikoak eta bakezkoak sustatzen dituen gizartea

Aurreko ataletan deskribatu diren ezaugarri globalak ikusita, eta lehiakortasun energetiko eta digitalerantz egin behar dugun ibilbide-orria ikusita, ezin dugu ahaztu Euskadik beti aurrera egiteko eta garaian garaikoari moldatzeko aukera izan duela, unean uneko premien arabera eboluzionatuz; gure gizarteaz harro gaudela, non komunitatearen, guztion ongiaren, elkartasunaren, erresilientziaren, ahaleginaren eta konpromisoaren balio partekatuak gure esentziaren eta nortasunaren parte izan diren. Hori esanda, egia da balioak eta lehentasunak aldatzeko joera dagoela, eta, horren ondorioz, oso adi egon behar dugu gizartea alde batera edo bestera mugiarazten duten nazioarteko joerekin.

Gaur egungo garaiek belaunaldien arteko eta mundu mailako ikuspegiaren eta egoeren arteko lotura handiagoa eskatzen dute. Balio demokratikoen eta bakearen sustapena, justizia soziala eta giza eskubideekiko errespetua bultzatu behar ditugu, baita belaunaldien arteko beste balio orokor batzuk ere, non planeta zaintzea, berdintasuna zentzu zabalenean ulertuta, aisialdirako eta atsedenerako eskubidea eta babesa balioestea, eta gure adineko pertsona guztien ahalduntzea eta zaintza auzitan jarriko ez diren. Gure herriaren dimentsioak, kultura propioa izateak ematen digun berezitasunak, egoki egiten gaituzte profil komunitarioa garatzeko, pertsonen arteko elkarlana eta konpromiso soziala erraztuz.

Euskadin, Europan bezala, biztanleria zahartua dugu, jaiotza-tasa oso txikiak ditugu eta funtsezko sektoreetan laguntza behar dugu, hala nola zaintzan, tokiko merkataritzan, industrian edo sektore aurreratuetan, edo belaunaldien arteko erreleboa bermatzeko gai ez garen beste sektore batzuetan. Profesional onenak behar ditugu etorkizuneko sektore estrategikoetan, talentuaren beharrezko aniztasunari erantzuteko.

Egoera honetan, migrazioaren fenomeno funtsezko eta beharrezko elementu jotzen dugu; hala ere, ukaezina ere bada ezegonkortasun globalak, mundu osoan ematen ari diren gatazken gorakadak edo demokraziaren narriatzeak eta munduko beste lurraldeetan Giza Eskubideak urratu izanak eragin egin dutela gaur egun, eta maizegi, migrazioaren fenomeno hori gerra hibridorako eta Europako zein Euskadiko elkarbizitza eta baloreak desegonkortzeko elementu gisa erabiltzea.

Errealitate horrek behartu egiten gaitu sakonki eta objektibotasunez aztertzea migrazio-mugimendu mota desberdinak eta horiei aurre egiteko modu desberdinak, gure gizarte-balioak errespetatuz, Euskadin etorkizuneko proiektu bat aurki dezaketen pertsona guztien gizarteratzea eta laneratzea erraztuz eta lagunduz, eta, aldi berean, euskal gizartea eta Euskadiko bizikidetzatza pobretzea edo ezegonkortzea helburu duten pertsona guztiengandik babesteko marra gorri eta babesa jarritz.

Migratzaileen potentzial osoaren aktibazioa eta aprobetxamendua bultzatu eta erraztu behar dugu. Horretarako, elkartasunaren eta justizia sozialaren euskal balioak bermatuz, beren egoera administratiboa

erregularizatzeko ekintzak sustatuko ditugu, baita beren titulazioen homologazioa, lan-merkatura sartzea eta familia berrelkartzea ere, Herri honen eraikuntzaren parte izan daitezen, beren eskubide guztiekin.

Migratzaileak integratzeko eta kudeatzeko hainbat eredu daude, eta muturreko mugimenduen hazkundearen ondorioz, proposamen berriak egiten ari dira giza-legeari begiratu gabe. Euskadik gai izan behar du bere eredu humanista tradizionala egungo behar eta errealtateetara egokitzeko, Europako erreferente izaten jarrai dezan.

Mundu mailan dauden gatazka ugari dagokienez, euskal gizarteak, gerraren, diktaduraren eta terrorismoaren gaitzak bere baitan pairatu dituenak, bake-balioak sustatzeko jarrera argia erakutsi du historikoki. Beraz, presentzia dugun nazioarteko espazio guztia baliatuko dugu euskal ahotsa hara eramateko, eta bake prozesuak, elkarriketak, gatazkak konpontzeko bide diplomatikoak eta, batez ere, giza eskubideak errespetatzeko bideak sustatzeko.

6.2 PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

6.2.1 Makroeskualde Atlantikoa sortzea eta Arku Atlantikoa eta Euroeskualdea bultzatzea

EAJ-PNVk ezinbesteko jotzen du euskal lurralde guztien arteko lankidetzaren indartzea, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Hirigune Elkargoa, gure 'Zazpiak Bat' kontzeptua finkatzeko. Hala, urratsak emango ditugu nazio gisa aitortuak izan gaitezten eta gure presentzia Europan sendotzeko.

Berregituraketa geopolitikoak, lehiakortasun-erronkek eta demokraziaren, giza eskubideen eta bakearen funtsezko balioak defendatzeko beharrak markatutako testuinguru global batean, Euskadik ahalmena badu Arku Atlantikoa Europan erreferentzia estrategiko gisa kokatzera bideratutako funtsezko ekimenak gidatzeko.

AECT-Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea 2011ko abenduaren 12an sortu zen Lurralde Lankidetzako Europako Taldea da, mugaz gaindiko eta euroeskualdeko lurraldearen garapen ekonomikoa, soziala eta kulturala sustatzea eta, aldi berean, lurralde horren barruko trukeak sustatzea helburu duena.

AECT- Nouvelle-Aquitaine -EAE- NAFARROA, Euroeskualde bat, herrialde bi, komunikatzeko, ikasteko eta lan egiteko erabiltzen ditugun lau hizkuntza propio: euskara, okzitania, gaztelania eta frantsesa.

AECT-Nouvelle-Aquitaine -EAE- NAFARROA, ikuspegi bat, espiritu bat, irrika bat: Euroeskualdea hurbiltasuna eta urruntasuna uztartuko dituen lurralde bihurtzea, tokiko eta eskualdeko biztanleen eguneroko bizitza errazteko, haien bizi-baldintzak hobetzen lagunduz hemen, orain eta etorkizunean.

Hala ere, beste urrats bat emateko unea da.

Makroeskualde Atlantikoa sortzea funtsezko gakoa da garapen jasangarri, lehiakor eta konektatua bermatzeko. Garapen horretan, lankidetzak hainbat estatu kide hartuko lituzke, hala nola Frantzia, Espainia (Galizia, Asturias, Kantabria eta EAE), Irlanda eta Portugal. Aldi berean, Euskadik Europako maila anitzeko gobernantzan duen lidergoa sendotzen lagunduko luke. Esparru ekonomikotik

haratago, bultzatu beharreko eta lankidetzan aritzeko beste arlo batzuk hartu behar dira kontuan, hala nola hezkuntza, kalitatezko etengabeko prestakuntza eta ikaskuntza, turismo jasangarria, gobernantza, kultura-trukeak, ekonomia urdina eta enplegua.

Azken batean, aukera paregabea da Atlantikoko fatxadaren lurralde- eta ekonomia-kohesioa indartzeko. Euskadik, bere industria-ibilbidearekin eta jasangarritasunarekin, ingurumenaren babesarekin, gure kulturarekin, berrikuntzarekin eta garraioan, energian eta digitalizazioan mugaz gaindiko konexioekin duen konpromiso irmoarekin, estrategia hori maila anitzeko gobernantzaren ikuspegitik gidatzeko apustua egiten du, Estaturik gabeko nazioen parte-hartzea eta proiektu eraldatzaileen inplementazioa ziurtatuz.

Ekimen horien garapena garraioan, energian eta digitalizazioan mugaz gaindiko loturak indartzean oinarritu behar da. Euskadik Europa barneko garraio-sareko (RTE-T) Atlantikoko Korridoreko Abiadura Handiko Trenbide Sarearen obrak 2030. urtea baino lehen amaitu behar ditu, pertsona eta salgaientzako prestazio handiko garraio-zerbitzuak bermatzeko eta izateko, lurralde-kohesioa, lehiakortasuna eta konektibitatea bermatzeko. Ezinbestekoa da estatu frantsesak berari dagokion lotunea osatzea, muga zeharkatzean trenbideko botila-lepo bat sor ez dadin. Frantziako eta Espainiako estatuak bete egin behar dituzte Europako araudian beraiek adostutako konpromisoak. Aldi berean, ezinbestekoa da hidrogenoaren korridorea bultzatzea Trantsizio Energetikoaren eta Jasangarritasunaren aldeko apustu irmo gisa, Pirinio Atlantikoen bidezko komunikazio-sarea indartuz eta Euskadi energia garbien ekoizpenean erreferente gisa kokatuz. Hidrogenoaren korridorearen garapenaren bektore honek energia berriztagarrien bidez sortutako elektrizitatearen bidez hidrogenoa ekoizteko apustua izan behar du. Euskadi herrialde txikia da tamainan, eta industria-prozesuei begira energia berriztagarrien eskaerari erantzuteko gaitasun klimatiko zehatzak ditu. Gainera, mugikortasunaren digitalizazio integrala eta Euskadi Arku Atlantikoko komunikazio-nodo gisa sendotzea funtsezkoak izango da talentua erakartzeko, berrikuntza sortzeko eta garapen ekonomikoa indartuko duen zerga-sistema lehiakorra ezartzeko.

Europako funtsen esparruan, Euskadi subjektu politiko independente gisa aitortzeak aukera emango luke eskualde-garapenerako baliabideak modu eraginkorragoan kudeatzeko, Espainiako eta Frantziako estatuen mendekotasunak ezarritako mugak gaindituz. Kohesio-funtsen eta berreskuratze-planen zuzeneko kudeaketak hazkunde ekonomikoari laguntzeaz gain, indartu egingo luke Euskadik trantsizioei lotutako proiektu estrategikoetan inbertitzeko eta herritarren bizi-kalitatearen alde lan egiten jarraitzeko politikak ezartzeko duen gaitasuna.

Eremu geopolitikoan, fokua gaur egun ekialderantz eta Mediterraneorantz lekualdatzeak indartu egiten du Makroeskualde Atlantikoa sendotzeko premia. Lurralde honen kokapen geografikoak egoera pribilegiatu batean kokatzen gaitu, Brexitaren ondoren Erresuma Batuarekiko harremanak gidatzeko. Proiektu horri esker, eskualde atlantikoek ahaleginak koordinatuko dituzte berrikuntzan, digitalizazioan, trantsizio energetikoan, eta konektibitatean, eta ordezkaritza aktiboa bermatuko dute nazioarteko erabaki-foroetan. Euskadi, Arku Atlantikoaren eragile industrial eta kulturala den aldetik, European modernitatearen, erresilientziaren eta diplomaziaren erreferente bihurtzeko estrategia horren buru izango da, nazioarteko testuinguruan duen zeregina indartuz eta Europar Batasunaren barruan Estatu oso gisa aitortzeko bidean aurrera eginez.

6.2.2 Gure ahalmen diplomatiko guztiari bultzada ematea

Euskadiko diplomazia politiko, kultural eta ekonomikoa da munduari irekita dagoen Herri baten aldeko apustu sendoa egiten den seinale, zeina gure garaiko erronkei modu aktiboan laguntzeko gai izango baita. EAJ-PNVren ustez, euskal nortasunak eta balioek presentzia izan behar dute nazioartean, lankidetzan, garapen iraunkorra eta Giza Eskubideekiko errespetua bezalako alderdiak nabarmenduz, mundu interkonektatu batean are garrantzitsuagoa den zer bait.

Funtsezkoa da Euskadik Europan duen posizionamendua eta zeregin aktiboa bultzatzea, bai eta lehiakortasunari, giza garapenari, ongizateari eta ingurumenari lotutako gaietan lehentasuna duten herrialdeetan abangoardiako nodo eta sareekin duen lotura ere. Gainera, lurraldeko eragile guztien nazioartekotzea bultzatzea funtsezkoa da gure ekonomiak, enpresek eta kulturak hazten ari diren eta hazteko ahalmen handia duten herrialdeetan duten posizioa indartzeko.

Euskadi sendotu egin behar da, mundu osoko beste lurralde, erakunde eta eragile batzuekiko lotura estrategikoen bidez. Horregatik, EAJ-PNVk defendatzen eta bultzatzen jarraitzen du gure herriak ahots propioa izan dezan guri eragiten diguten erabakiak hartzen diren nazioarteko foro guztietan.

EAJ-PNVk Euskadiko diplomaziarako duen ikuspegiak, foro multilateraletan ordezkaritza diplomatikoa izateaz gain, gure balioen proiektzioa hobetzeko eta euskal gizartearentzat aukera berriak sortzeko sareak eta aliantzak sortzea ere eskatzen du. Horren barruan sartzen dira bai Euskadik Europan eta nazioarteko beste testuinguru batzuetan dituen interesen defentsa, bai gure kultura, garapen eta ekonomikarako aukera estrategikoak dauden eskualdeekiko harremanak sendotzea. Gainera, errespetuan eta lankidetzan oinarritutako kanpo-politika sustatu nahi dugu, Euskadiko kultura-sarea eta sare ekonomikoa indartzeko.

Helburu horiek lortzeko, ondorengo neurri hauek proposatzen ditugu:

- Euskadik ahots propioa izan dezan eta garraioaren, ekonomia berdearen, kulturaren eta klima-aldaketaren arloko legegintza-politikei eta -ekimenei buruzko erabakietan parte hartu ahal izan dezan bultzatzea.
- Euskadiren eta erakunde multilateralen eta Nazio Batuen erakundearen arteko harremanak sendotzea, giza eskubideen, iraunkortasunaren eta garapenaren eta ongizatearen arloko lankidetzan sustatuz, euskal kanpo-politika sendo baten oinarri gisa.
- Erakunde guztietan, Europakoetan barne, gure presentzia indartzea (beste eskualde batzuekin batera), Euskadiren eskumenak areagotzea ahalbidetuko duten legegintza- eta arau-ekimenak bultzatuz, garatuz eta babestuz.
- EAJ-PNVren eta Afrikako eta Asiako hego-ekialdeko lurralde estrategikoen arteko harreman berriak ezartzea. Harreman pertsonalak eta ordezkaritza komertzialen, industrialen eta diplomatikoen sarea areagotzea funtsezkoa da, bi aldeei mesede egiten dieten eremu ekonomiko eta kulturaletan lankidetzan aritzeko potentziala dagoelako, bai eta Euskadin bizi diren Asiako eta Afrikako diasporaren ekarpena ere. Gainera, euskal erakundeek abian jarritako eta Elankidetzan- Lankidetzan eta Elkartasunerako Euskal Agentziak koordinatutako garapenerako lankidetzan-politikek palanka estrategikoa izan behar dute euskal diplomaziarentzat, eta ondo bideratutako asmo handiko estrategia koherente baten barruan antolatu beharko dira.
- Euskal enpresei nazioartekotze-prozesuan lagunduko dien eta sektore estrategikoetan inbertsioak erakartzea erraztuko duen diplomazia ekonomikoa sustatzea, horrela Euskadiko produkzio-sarea sendotuz.

- Nazio Batuen Erakundea (NBE) berritzeko prozesu bat sustatzea, estatu burujabeetako, estaturik gabeko nazioetako eta herri indigenetako ordezkariak bilduko dituen batzar bat sortuz, ahots guztiak entzun eta errespetatu daitezkeen.
- Euskal kultura, hizkuntza eta kirola nazioartean babestea eta zabaltzea, Euskal Herriko sortzaileek, kirolariek eta artistek beren lana hainbat testuinguru globaletan ezagutarazteko, erakusteko eta garatzeko aukera izan dezaten ahalbidetuz, eta, horrela, gure nortasunaren aintzatespena sustatuz, euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa bultzatuz.
- Euskadik Europako lankidetzaren foro eta -sareetan duen parte-hartzea indartzea, gure Herria funtsezko eragile gisa kokatuz industrializazio teknologikoko, jasangarritasuneko, eskubide digitaletako eta ekonomia zirkularreko ekimenetan.
- Euskadiko erakunde akademikoak eta ikerketa-erakundeak maila globaleko ezagutza- eta garapen-sareetan sar daitezkeen sustatzea, EAEko eta EAEko ikasleek eta ikertzaileek bikaintasun-inguruneetan sartzeko eta Euskadiren potentzial berritzailea indartzeko aukerak sortuz. Era berean, atzerriko ikasleak eta ikertzaileak erakartzea, Euskadi ezagut dezaten eta gure diplomazia publikoko estrategiak eta kulturak sustatu dituzten, euskal sare diplomatiko globaleko eragile aktibo bihurtuz, diaspora hau gaur egun Euskadin bizi ditugun erronkei aurre egiteko palanka izan dadin.
- Atzerriko hizkuntzen ikaskuntza eta erabilera oro har sustatzea, gure herritarrek nazioarteko eta Europako erakundeetan parte har dezaten ahalbidetzeko eta bultzatzeko.
- Nazioarteko marka bat sustatzea, Basqueat, elikagaien eta gastronomiaren nazioartekotzea sustatuko duena, elikadura gure nortasun-ezaugarrietako bat izan dadin munduko gainerakoen aurrean.

6.2.3 Euskal Diaspora eragile aktibo gisa Euskadiren etorkizuneko garapenean

Euskadin eta mundu globalizatu osoan erronka konplexu eta esanguratsuei aurre egin behar diegu gaur egun. Horrek eskatzen digu ikuspegi zabalarri eustea, gure diasporak migrazio- eta ekonomia-errealitateei buruz kanpotik eskaini diezagukeen ezagutza barne hartuz. EAJ-PNVn aitortzen dugu Euskal Diaspora ezinbesteko indarra dela, nazioarteko ikuspegia emateko gai dena, gure gizartea ikuspegi globalago batekin eta lurralde-ñabardura propioekin aberastuz.

Euskal Diasporak biltzen ditu Euskadirenganako kide-entimendu bizia duten pertsona eta komunitateak, atzerrian bizi diren pertsona atzerriaratuetatik hasi eta diaspora tradizionaleko bigarren eta hirugarren belaunaldiak ondorengoetaraino. EAJ-PNVn, diaspora honek gure herriaren garapenean duen zeresan aktiboa birdefinitzeko konpromisoa hartzen dugu, gure politikak eta programak egokituz haren ahalmen osoa maximizatzeko eta bere behar espezifikoak erantzuteko; eta diaspora hau, aldi berean, gaur egun Euskadin bizi ditugun erronkei aurre egiteko eragilea izan dadin.

Euskal Diasporarekin dugun harremanean paradigma aldaketa baterantz aurrera egiteko unea da. Gaur egungo ereduak gaitzitzea proposatzen dugu, zeinak Euskal Etxeak topagune eta kanpoko talentua erakartzeko gune gisa hartzen baitu, eta gure diasporak Euskadiren etorkizuneko garapenean eragile aktibo gisa duen potentziala aintzat hartuko duen ikuspegira igarotzea. Aldaketa hori diasporak gure kultura eta nortasuna zabaltzeko eta bakoitzaren geografian eragina izateko duen gaitasunean oinarritu behar da, irtenbide berritzaileak identifikatu behar dira, garapen ekonomiko eta sozialari lagundu behar zaio eta nazioarteko beste testuinguru batzuetan duen esperientzia eman behar da, bereziki erronka demografikoa, migrazio-krisiak eta egungo joera ekonomiko berriak bezalako gai kritikoetan. Azken batean, Euskal Diaspora nazioarteko euskal lobbyaren oinarri gisa hartuz.

Migratzaile bezala orain arte egin dugun ibilbideak gaur egungo erronkei aurre egiteko ikasgai baliotsuak eskaintzen dituela uste dugu. Ikuspegi horrek aukera emango digu egungo arazoei enpatia- eta ezagutza-posizio batetik heltzeko, diaspora gure ekonomiaren eta gizartearen funtsezko sektoreetan integratzea sustatzeko.

Horretarako, aitortzen dugu gaur egun desberdintasunak daudela kanpoko euskal komunitate historikoaren, bere ondorengoen eta migratzaileen belaunaldi berrien artean. Beraz, gure politikak eta programak egokituko ditugu kolektibo horien behar espezifikoak erantzuteko. Gure egitekoa da haien inklusioa eta parte-hartzea sustatzea, diasporako sektore bakoitzak Euskadiren etorkizunari modu aktiboan laguntzeko aukerak aurkituko dituela ziurtatuz, baita nazionalitate bikoitzaren bidea sustatuz ere, haren integrazioa bultzatzeko. Nazioartekotzeko eragile publiko eta pribatuak eta euskal diasporako belaunaldi berrien berrindartze ideologikoa bultzatzea, Euskadi marka merkataritza- eta lankidetzatza-harremanetarako aprobetxatzeko.

Migratzaile izan gara iraganean, eta Euskal Diaspora dagoen herrialdeekiko loturak baliatu behar ditugu

Horrekin guztiarekin, EAJ-PNVk honako jarduerak hauek bultzatuko ditu:

1. Beste herrialde batzuetan, arlo ekonomikoan, sozialean, politikoan, kulturean eta akademikoan adituak diren euskal herritarrak eta haien inguruko pertsonak identifikatzea, haiekin konektatzeko eta elkarren arteko trukeak, eragin globala eta orokorra duten eragileen nazioarteko euskal lobby bat osatzera begira. Direktorio digital bat sortzea, atzerrian bizi diren euskaldunak beren borondatez erregistratu daitezkeen eta beren datuak eman ditzaten. Direktorio honek aukera emango die beste herrialde batera joateko asmoa duten euskaldunei haien integrazioa errazteko eta laguntza-sareak ezartzeko. Aldi berean, diasporako kideen arteko lankidetzak profesionalari bide emango zaio, esperientzien trukea eta munduko euskal komunitatearen sendotzea sustatuz.
2. Euskal Etxeen sarea finkatzea eta espazio digital berriak bultzatzea: Euskal Etxeak erreferentziazko zentro gisa eta lehen definitutako diasporako kideen arteko harreman ekonomiko, kultural eta gastronomikoko gune gisa indartzea, lehendik dauden plataforma digitalekin osatuta, baita etorkizunean gara daitekeen beste edozein tresna osagarrirekin ere, diasporak Euskadirentzat estrategikoak diren gaietan interakzioa eta parte-hartzea errazteko, belaunaldi berrietan arreta berezia jarritz, diasporako belaunaldi gazte horiek Euskadiren etorkizunaren eraikuntzan inplikatzeak estrategiak diseinatzeko. Euskal Etxeen eta Alderdiaren Euzkadiz kanpoko erakundearen sarearen arteko lotura lortzea.
3. Talentua Erakartzeko Programak: beren beregi sortutako programak ezartzea, profesional kualifikatuak eta diasporaren ondorengo belaunaldi berriak erakartzeko eta Euskadirekin konektatzeko, eta pizgarriak eta erraztasunak ematea, itzul daitezkeen eta Euskadin funtsezkoak diren proiektuetan parte har dezaten, bai eta euskal industriaren beharrei erantzuteko ere, talentua erakartzeko egungo zerga-tresnak eta inpatriatuak baliatuz. Arreta berezia jarri beharko litzaioke egoiliar iraunkor izan gabe Euskadin ari diren ez-egoiliarren zuzeneko zergapetzeari, horixe baita atzerriko inbertitzaileen ohiko jarduteko modua.
4. Diasporaren eskutik Euskadira atzerriko inbertsioa erakartzeko programak eta mekanismoak: diaspora garrantzitsua duten beste herrialde batzuen antzera, Irlandako ereduari jarraituz (atzerriko inbertsioaren %75 diasporari lotuta dago), aliantzak eta mekanismo proaktiboak sortuko lirateke euskal jatorriko enprekin, enpresarekin eta enpresaburuekin, herrialdeari inbertsioak erakartzea sustatzeko.
5. Euskal enpresen nazioartekotzea bultzatzea eta laguntzea: euskal jatorriko enpresaburuen eta euskal enpresen artean aliantzak edo "joint venture" delakoak sortzeko mekanismoak garatzea, euskal ordezkartzen eta kanpoko bulegoen sarea optimizatuz, bai eta profesionalak, euskal zuzendaritza taldeetako langileak atzerriko enpresa eta multinazionalen posizionatzea ere. Gomendagarria da

“joint venture” horietan aintzat hartzea inplikaturako teknologiaren jabetza industrial babestu behar dela, berrikuntzaren eta garatutako ezagutzaren gaineko eskubideak modu egokian kudeatuko direla ziurtatuz, euskal enpresen balio lehiakorra babesteko.

6. Euskal nortasuna sustatzea: euskal kultura, hizkuntza eta nortasuna diasporan transmititzen laguntzea, truke-programen eta kultura-jardueren bidez eta Euskadiri, hizkuntzari eta ondareari buruzko hezkuntza-baliabideetarako sarbidea emanez. Euskal diasporarekin elkarriketa bat ezartzea euskal nortasunari buruz eta Euskadi kulturantzun eta globalizatu bati egiten dion ekarpenari buruz, elkartrukerako eta elkar ezagutzeko programen bidez.
7. Gaur egungo egoeran, klimaren krisiarekin, gatazken gorakadarekin eta biztanleriaren balore eta lehentasunak aldatu direla, EAJ-PNVk erantzukidetasun globalari eusten dio, eta euskal ekintza humanitarioa bultzatzeko erronkari heltzen dio larrialdien, krisien eta hondamendien, giza eskubideen urraketen, nahitaezko desplazamenduen eta pobrezia-ondorioak arintzeko egin beharreko ekarpen gisa. Horretarako, sinergiak bilatu beharko dira eta arlo horretan lan egiten duten eragileekin elkarlan sendoagoa bilatu.
8. Hizkuntzarekin, kulturarekin, bakearekin, giza eskubideen defentsarekin, lankidetzarekin, ingurumenarekin eta abarrekin zerikusia duten nazioarteko erakundeetan Euskadiren aintzatespenaren eta parte-hartze zuzenaren alde lan egitea, bai eta euskal kirol-selekzioen nazioarteko aintzatespenaren eta parte-hartzearen alde ere.

7 ONDORIOAK

Txostenaren abiapuntua da egiaztatzea guztiz ezinbesteko dugula Europar Batasunaren parte izatea; zer garen, non gauden, gure proiektu estrategikoak zein diren, marra gorriak non jartzen ditugun eta nora eta norekin joan nahi dugun. Euskadik lehiakortasunaren eta gizarte-ongizatearen arloko erronka globalak partekatzen ditu beste eskualde, nazio eta estatu batzuekin, baina horiei heldu behar die ahots propioz heltzeko bokazioarekin eta borondatearekin, nazioarteko ekintza politikoko estrategia baten bidez. Europako erabaki organoetan Euskadiren presentzia indartzea eta sustatzea.

Jardun honen lehen ardatza izan behar da Europa federalaren alde egitea, errealitate ezberdinak aintzatestetik eta errespetatzetik eraikiko dena (pertsonek, udalerriak, nazioak eta Estatuak), subsidiariorik printzipioa errespetatuz. Bigarrena da gure Herria aldarrikatzea, Europa federal horren barruan espazio politiko bat izatea dagokion Nazio gisa, non burujabetza izango eta partekatuko baitu, federazioko gainerako beste kideen maila berean.

Gaur egun paradigma aldaketa baten aurrean aurkitzen gara, nazioarte mailan are ezegonkortasun eta ziurgabetasun handiagoarekin, demokrazia eta giza eskubideak auzitan jartzen dituzten populismoekin, gerra hibridoek eta desinformazioak dakarten mehatxuarekin, eta lehiakortasunaren galerarekin. Beste erronkak ere baditugu: Errusiak Ukrainaren kontra hasi duen eraso-gerra, Ekialde Ertainean eta Afrikako herrialde batzuetan hazten ari den ezegonkortasuna, Amerikako Estatu Batuen aldetik has daitekeen gerra komertziala, Txinako Errepublika Popularraren nagusitasun industrial edo Europar Batasunaren zabalkuntza.

Testuinguru honetan, Euskadik jarraitu beharko duen bidea izango da gure baloreena, hau da, demokrazia errespetatzea eta aldarrikatzea, Giza Eskubideak eta identitateak, justizia soziala, garapen jasangarria, elkarriketa, bakea eta erabakitzeko eskubidea errespetatzea. Euskadik berezko eskubide du munduan bere naziotasuna aitortua izan dadila, gainerako Estatu bakoitzaren baldintza bereberekin. Alderdi gisa, Europa eta nazioarteko

erakundeetan dugun ahotsak Estaturik gabeko nazioen protagonismoa indartu behar du, gure interes ekonomiko eta kulturalak eta gure nortasuna defendatuz.

Hiru helburu estrategikotan jarri behar dugu arreta: energia-lehiakortasuna, lehiakortasun teknologiko-digitala eta berrikuntzaren eskutik doan gizarte-lehiakortasuna. Nazioartekotze-politika horietatik eratorritako garapen ekonomikoak balio behar du Euskadi gizarte gisa ager dadin, non herritarrek prestakuntza handiagoa izango duten, osasun- eta kultura-zerbitzu onenak izango dituzten, eta zerbitzu horiek pertsonen, erakundeen, herrien eta hirien arteko berdintasun-erregimenean gozatu ahal izango dituzten.

Gaur egun, gure auto hornikuntza energetikoa ez da %10era iristen, eta horrek esan nahi du kontsumitzen dugun petrolio, gas eta elektrizitate ia guztia kanpotik ekarri behar dugula. Auto hornidura %15eraino handitzeko, gure industriaren eskari elektrikoari erantzuteko, inbertsioak erakartzeko eta gure lehiakortasuna bultzatzeko, ezinbestekoa da elektrizitate berriztagarria sortzea eta, bide batez, elektrizitatea sortzeko prozesuak deskarbonizatzen laguntzea. Aldi berean, energia- eta biltegiatze-iturri berriak bilatu beharko dira, oinarritzko ikerketaren eta ikerketa aplikatuaren aldeko apustu irmoa eginez.

Euskadik, halaber, bere potentzial teknologikoa baliatu behar du, gure aliatua izan behar baitu gure lehiakortasun-eredua hobetzeko, berrikuntza bizkortzeko, pertsonen gaitasunak eta ongizatea handitzeko, burokrasia murrizteko eta demokrazia, gure nortasuna eta giza duintasunaren, guztion ongiaren, elkartasunaren eta justizia sozialaren defentsa-balioak indartzeko. Azken batean, Adimen Artifiziala, Quantum Computing (konputagailu kuantikoa) eta beste teknologia disruptibo batzuk garatzen eta zentzuz erabiltzen jarraituko duen plataforma estrategiko bat bultzatzea. Gure Herrian partaidetzazko lan-moduekin eta Gizarte Ekonomiaren presentziarekin agertzen den kapital sozialaren aberastasuna eguneratu egin beharko da, lehiakortasunari eta pertsonen eta gizartearen nahiak asetzeari laguntzen jarraitzeko.

Ez da ahaztu behar Euskadik, Europako beste estatu askok bezala, biztanleria zahartua duela, jaiotza-tasa txikia duela eta beharrak badituela belaunaldi-erreleboa bermatuta ez dagoen funtsezko sektoreetan. Egoera horren aurrean, bi esparrutan lan egin behar dugu. Lehenik eta behin, euskal gazteei bizi-proiektu propioa garatzen eta familia bat sortzeko baldintzak hobetzen lagundu behar zaie, enplegu egonkorra sustatuz, garapen-aukerek, soldata egokiekin eta etxebizitza-aukerek. Halaber, kontziliazio-politikak bultzatu behar ditugu, eta familia mota berriei aukerak eman, hala nola guraso bakarrekoei edo sexu berekoei. Bestalde, eta nahiz eta migrazio-fenomenoa desegonkortzeko eta polarizatzeko elementu gisa erabiltzen ari den, beharrezkoa da, "harrera emateko euskal ereduan" oinarrituta, gure balioak errespetatuz etorkizuneko proiektua Euskadin aurkitzen duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea erraztea.

Euskadik ere baditu garatzen jarraitu beharreko zenbait indargune estrategiko. EAJ-PNVk Makroeskualde Atlantiko bat sortzearen eta Arku Atlantikoa bultzatzen jarraitzearen aldeko apustua egin du, euskal lurraldeen arteko eta inguruko herrialdeekiko lankidetzat indartzeko bide gisa.

Diplomazia kultural eta ekonomikoa indartu beharra aldarrikatzen dugu, Euskadik nazioartean duen proiektzioa hobetu ahal izateko era guztietako erabaki-foroetan eta erakunde multilateraletan eta Europako lankidetzasareetan, herrialde giltzarritzat har gaitzaten. Afrikako eta Asiako hego-ekialdeko lurralde estrategikoekin ere harremanak ezarri nahi ditugu.

Azkenik, Euskadiren garapenerako ezinbesteko indarra den Euskal Diasporari eusten jarraitu behar diogu. Gaur egungo mundu globalizatuan, diasporak, norbanakoek eta komunitateek gure gizartearen aberastu dezakete, eta migrazio- eta ekonomia-errealitate berriei buruzko ikuspegi globala eman. Horregatik, Euskal Etxeak topaleku gisa hartuta, diaspora eragile aktibotzat jotzen duen beste bat birdefinitzeko eta egungo ikuspegia gainditzeko konpromisoa hartzen dugu. Bere gaitasuna aprobetxatu behar da eragina sortzeko eta nazioarteko euskal lobby

gisa jarduteko. Proposamen gisa, Euskal Etxeen sarea erreferentzia-puntu gisa sendotzen jarraitu nahiko genuke, talentuak erakartzeko programak abian jartzea profesional kualifikatuak erakartzeko, Irlandako eredua diasporari lotutako inbertsioa eta aliantzak erakartzeko erabiliz, eta kontsulta- eta erabaki-prozesuetan parte hartu ahal izateko mekanismoak garatzea, munduan euskal nortasuna sustatzeaz gain.

Jarraipen batzorde bat eratuko da, zeinak adierazleak defintzearen bidez, txostenaren garapenaren azken ebaluazioa egingo baita, alderdikideei emanez beronen betetze mailaren berri.